



GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

77. zenbakia

95eko irailak 22



Udazken giroan

Olaberritarra dugu Estensoro jauna, 44 urteko ekonomialaria eta hasi berria da zuzendari gisa Beasaingo Euskadiko Kutxako bulego bakaurrean. 20 urte daramatza, ordea, Kooperatiba Taldean: hasi Lankide Aurrezkian, segi Legorretako “Eredu”n gerente moduan, “Goilan”eko finantza zuzendari eta “Irizar”-en Frantziako filial batean arduradun gero, eta azkenean hemen. Goierriko kooperatiba firmekin lotua batipat, beraz.

Enpresa eta bertako gizona

Esperientzia eta eginkizun garrantzitsutzat dauzka kooperatibetakoak: “gero, logikoki, pertsonen esku daude egin-kizunak eta pertsonen artean denetik dago; jendeak egiten du hobeago edo txarrago erakunde bat. Erakunde eredu bezala oso interesgarria da kooperatibena eta sozialki aurreratua”. Oraindik ere ikusten ditu diferentziak enpresa pribatuekiko: “Hasteko, sortzen diren etekinak urte bukaeran langileena dira eta en-

presan bertan gelditzen dira, lanpostu eta aberastasun gehiago sortzearen. Hori oinarritzkoa da. Berdin gertatzen da Euskadiko Kutxarekin, langileena da. Kooperatibetan sortzen diren etekinak, gainera, berrinbertitzen dira; orduan, posibilitate handiagoak dituzte hauek aurrera jarraitzeko eta lanpostu berriak sortzeko”.

EUSKADIKO KUTXAREN ESKEINTZAK

* Eskatu zure mailegu
hipotekarioa baldintza ezin
hobeetan.
* Ondare aseguratua:
errentagarritasuna, epea eta
likidezia, tratamendu fiskala,
bizi-asegurua eta beste
zenbait ezaugarri.

Horrezaz gain Olaberriko alkate ere izana da 8 urtetan Anjel. Franco hil aurretik bertako Guraso Elkartearen zegoen (oso arraroa bada ere, lehen eta orain bizi-bizirik dagoen elkarte); berak proposatzen ditu aurrekandidatuak, eta gurasoek egindako botazioen arabera, elkarte horrek ateratzen ditu zinegotzi gehienak. Horrela izan



zen alkate-orde posfrankismoan eta alkate gero. Nola konpaginatu dituen lan ezberdinak?: “Olaberri txikia da biztanle aldetik; sarrera handiagoak ditu gastuak baino, erraza gestionatzen aurrekontu aldetik, hortaz; eta Udalean sartu garenok beti taldean egin dugu lana, zinegotzi bakoitzak eta Jesus Mari Imaz batek lan asko egin zuten”. “Etxera” joateko ordua somatu arren, bere herria eta talde-lana maitatzen jarraituko duela aitortzen digu olaberritarrak.

“Laborala” Kooperatiben Taldea finantziatzeko sortu bazen ere, “orain kooperatibek badute beren finantziaketa maila; dibertsifikatu beharra zegoen gainera eta, hazi garenez, mundu guztia-erentzako zabalik dauzka-

gu, bai diru-sarrerak egin eta bai prestamuak eskeintzeko zerbitzuak”. Dirua aurreztu nahi dutenei, “guk dauzkagula gaur egun produktu interesgarrienak, bai epe motx eta luzeera eta mailegu eskeintza bereziak ditugula, gure ustez oso konpetitiboak”, esan nahi lieke.

Beasaingo bulegoa oso garrantzitsua da entitate horrentzat: 6.000 bezero (“eta onak, gainera”) ditu, inguruotako herrietakoak hartzen dituzte. Bertan 8 enplegatu daude, ohizko denaren bikoitza: “Erauskin plazako hau martxan dihoan ‘trena’ da: eboluzio interesgarria dauka, era askotako lanak burutzen ditugu enpresa ugariarekin, bai mailegu eta bai deskontu komertzial mailan”. Bolumen inportantea du.

CAJA LABORAL

EUSKADIKO KUTXA



GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

"Goierritarrak" Kultur
Elkartea.

Dorre-etxea, 1.

(Postetxe-gainean).

Tfnoa: 889612.

Faxa: 882719.

124. posta-kutxa,
20240 Ordizia.

Zuzendaria:

Loinaz Agirre.

Maketazioa:

Mikel Albisu.

Publizitatea:

Josune Agirre.

Erredakzio Batzordea:

Dionisio Amundarain, Jon
Arano, Mikel Albisu, Jon Ima-
nol Iturrioz, Patxi Zubizarreta,
Ane Martin, Loinaz Agirre, Ne-
kane Altuna eta Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista
eta kolaboratzaileak:**

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
Jon Aizpurua, Izaskun Salazar,
Aitziber Murua, Irida Martin,
Jon Mikel Arano, Rufino Iraola,
Xabier Mendiguren, Ramon
Ugalde, Jesus Aizpurua, Nagore
Goiburu, Aloña Galaraga, Jo-
sune Aondarain eta Igor Sarrie-
gi.

**Fotokonposaketa eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: ANtZA, S.A.
(Industrialdea, 1-2. Lasarte-
Oria)

Tirada: 4.900 ale. 4.700 harpi-
dedun.

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du
bere gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzunkin-
zunik.

▼ Hamabostaldian nabarmen ▼



Zerainen karea era zaharrera

Urteroko ohiturari jarraituz, iraileko bigarren as-
tean Zerainen ospatzen
den Kultur Astearen ba-
rruan, aparteko ekintza
interesgarri bat egin zen:
karea era zaharrera egitea
alegia. Horretarako Urku-
llutako bide-gurutzearen
ondoan dagoen Etxeandiko
karobia (karea egiteko
labea) prestatu zen. Duela
70 bat urte utzitako lan-
gintza hau berreskuratze-
ko, karobia eta inguruak
garbitu, eta kare-harria eta
egurra inguratu zituzten.

Karobia, lurreko harbe-
lan zulatutako erakoa da.
Bertan kare-harri azpiko
aldean uztai bat eginez
kokatua da. Sua uztai ho-
rretan egiten da. Sua bizi
mantendu behar da etenik
gabe hiruzpalau egunez,
honek harria erre eta karea
bihurtu dadin. Joan zen as-
teazkenean piztu zuten eta
larunbaterarte piztuta izan

zuten karobia gau eta egun.
Iganderako prest zegoen
karea ateratzeko.

Karobi-langintza hau
zuzentzen, bere gazte ga-
raian lan honen erreferen-
tziak jaso zituzten Urrusti-
ko Juan Apaolaza eta Ba-
sazabalgo Julian Muñoa
aritu ziren. "*Karea egin
dugun lehenengo aldia da,
eta txikitan ikusitakoare-
kin egin dugu karea*",
adierazi ziguten.

Arazoren bat edo beste
izan zuten zeraindarrek.
"*Ataka berria egin behar
izan genuen, aurretik ze-
goena beroarekin erori
egin baitzen*". Baina ho-
nelakoetan gogoak gehia-
go balio duenez, lortu zu-
ten karea egitea.

Bikote honek beste ze-
raindarren laguntzaz, iaz
ikatz egin zuten, aurten
karea. Ea hurrengorako zer
dugun.

Besteek esana

"Haurrengan irakurzaleta-
suna kontagioaz sortu
behar da. Ikastetxe batera
nere liburuaz hitzegiteko
joaten naizenean irakas-
leak esaten dit ea egingo
dudan zerbait irakurzale-
tasuna eragiteko. Baina nik
ordu batean ezin dut ezer
egin. Nik adierazten die-
dan gauza bakarra, irakur-
tzea gogokoa dudala da.
Barre egiten dute, baina nik
aipatzen diet zahar asko
ikusten dudala aspertuta ez
dakitela zer egin. Liburua
onuragarria izan daiteke
kasu hauetan. Benetako
irakurleak beti eramango
du libururen bat poltsikoan
eta denborapasa interes-
garriaz gustora biziko da.
Lehen uste zen liburua
baztertuta geratuko zela,
ordenagailua zela eta, bai-
na nik ezagutzen dudan
inguruan ez dut somatu ka-
taklismo hori gertatu de-
nik".

**Joxan Ormazabalek, Gal-
tzaundin, 1995-VIII-31n.**

"Zaldibiko erlijio eskain-
tzaren kalitatea, oso onar-
tua dago leku askotan. (...) Nire azken sermoian elizak
beti herriari begiratzeko
eskatuko dut, ezin baita he-
rririk egin gabe elizarik
egin".

**Emeterio Sorazuk, DVn,
1995-IX-8an.**

*Eusko Jaurlaritz-
ako Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA dohain
jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea.....

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Espetxetik

Martuteneko espetxean nago, abuztuaren 28an sartu bait ninduten. Bertan 21 intsumiso aurkitzen gara, Bizkaian 49, Araban 2, Nafarroan 100 inguru eta estatuko guztiak batu ezker 200 kontzientzi preso baino gehiago gara, derrigorrezko soldaduzka edo ordezkoko zerbitzu sozialari uko egiteagatik.

Hala ere, niretzat eta geure arteko askorentzat egoera honetan aurkitzen gara geure kontzientzi antimilitaristarekin bat etortzeagatik, izan ere, geure burruka eta *intsumisioaren* helburuak ez dira hemen bukatzen:

- Militarismo eta ondorioz herri indartsuek beren ejerzitoen eta armen kopuru eta mailaren arabera inposatutako indarkerian eta menpekotasunean oinarritzen diren gaur egungo herrien arteko harremanei aurre egiten diogu.

- Gatazkei konponbidea lortzeko aukera berriak asmatu nahi ditugu. Geure jarrerarekin iratzar garrasi bat botatzen dugu guztion artean errealitate berrietan pentsa dezagun eta gatazkei indarkeriarik gabeko irtenbideak aurki diezazkiegun. Indarkeriarik gabeko erresistentzi hau bizitzaren aurrean zabaldu nahi dugun jarrera da. Bakea, bai norbera, bai giza taldeen eskubideen defentsan eta onarpenean oinarritu behar da eta ez armen poderioz lortutako "garaipenei" esker.

- Militar industriaren birmoldaketa proposatzen dugu. Armen produkzioak eta trafikoak etekin handiak ateratzen dituzten bitartean beti aurkituko ditugu gatazka armatuek bultzatuko dituzten botere politikoak.

- Soldaduzka eta militar estamentuak gaur egungo elkartasunik gabeko giza egiturak suspertzen dituzte eta hein berean bai gizarte baten barnean, hala nola herrien arteko maila guztietako desberdintasunak (batez ere, ekonomikoak, honek suposatzen dituen ondorio guztiekin) iraunarazten dituztelako.

- Osasun, heziketa eta herritar ororentzat askoz ere mesedegarriagoak diren beste hainbat departamenturen aurrekontuak batuta, gobernuek askoz ere

diru gehiago gastatzen dutelako ejerzitoetan.

- Eta ordezkoko zerbitzu sozialari dago-kionean esan beharra dago soldaduzkaren eskema berbera errepikatzen duela, beraz, hori onartzeak soldaduzka bera baieztatuko lukeelarik. Gainera, zigor bat besterik ez da eta ordainduriko lanpostu bat deusezten du. Giza zerbitzuek borondatezkoak izan behar dute, gizaki behartsuen mesederako eta ez erakunde pribatu batzuek etekina atera diezaieten.

Burruka honen estrategia giza desobedientzia da. Badakigu lege baten aurka jokatu dugula, baina jarrera hau gizarteari zabaldu diogu gure arrazoiak azalduz eta lege honen aldaketa aldarrikatuz (gizartearen sektore zabal baten laguntzarekin). Gizartearen aurrean botere politikoek izan duten erantzuna, gu gaizkileztat, insolidariorizat eta hiritar gaiztotzat aurkeztea izan da. Geure ahotsa sistematikoki estali eta zikindu nahi izan dute, hala ere, gure jarrerarekin geure eritziei eta proposamenei errespetua, behinik behin, irabazi dugulakoan nago.

Azkenik, zein da gu espetxeratzearen helburua? Geure ideiei uko egitea, beharbada? Espetxeratzeak "teorikoki" berrezitu eta bergizarteratzea ditu helburu nagusizat, baina egun bat hemen barruan aski da potere politikoen asmo teoriko horiek ustelak direla konturatzeke, izan ere, hemen barnean ikusitakoek ez baitute lehengo asmo "teoriko" horiek egia direnik ere pentsatzera bultzatzen, zaborraz beteriko "demokraziaren" atzekaldeko patioaren itxura guztia duela, baizik.

Hala ere, espetxeratuak, sakabana-tuak izan, zigor eta inhabilitazio fiskal eta sozialak jaso, nahi dutena egingo dutela ere, geure printzipioei gogor eutsiko diegu.

Anjel Mtz. de Rituerto, Martutenen gatibu dagoen intsumisoa.

Euskara, Arzalluz eta enparauen adausiak

Hauek atera behar dizkigute guri el-tzetik babak!, entzun behar direnak! Hain ximplea dena... Eurak bai direla akerraren adar okerrak baino okerra-goak! Eta gero herriari esan, adizue, ez ditugula konprenitzen! Edozein herri-tar xumeak egiten duena --hizkuntza erabili eta kito!-- egiteko gai ez direla eta artaburuak gu gainera, tira! Nahi-koa dugu!

Baina nor engainatu behar dute erlijio eta alderdiek? Bakar-bakarrik ba-kean dagoena gerran jartzeko baino ez dute balio, hau da, euren frustazio, porrot eta kalamidadekeria guztiak bes-teei transmititzea dute helburu, eurak libre eta bendito geratze arren, horrela direlakoan gauzak!

Itzarri!, osterantzean akabu da hauekin. Baina zenbat kalamidade-keria gehiago behar ete ditugu horre-taz ohartzeko? Zenbat gezur gehiago?

Ireki apur batean begiak. Jende hau --zauriz beterikoa-- "diferente" senti-tzen badira jarrai dezatela!, baina ez ordea, izugarrizko bakardadea lagun heri dira oso, eta halakoetan, nola edo-zein animalia, halaxe ekiten diote za-lapartari, gerrari. Eta zenbat eta han-diagoa izan animalia --jarraitzaileen kopurua-- orduan eta heriotza --heda-bideak-- zalapartatsuagoa. Itxura!

Jende klase hau oso da ahula, aspe-rrak eta beldurak jota. Agertu beharra sendagai. Behar dute. Sinesteko bizi direla. Baina ez, hilik daude eta ondo-txo dakite, ze ez dute ezertxo ere senti-tzen eta ez dira esaten dutenaren jabe. Gure txaloen beharraren menpe da-go, hutsak halakoak! Dena dakit, eta dena jakite horrek ez die sentitzen=bizi izaten uzten. Ze pena! Utikan!

Pello Sarriegi Urretabizkaia (Barrika)

Intereseko Telefonoak

Gure korrespentsalen telefonoak

Ataun:

Jon Aizpurua180139

Beasain:

Izaskun Salazar880313

Ezkio-Itsaso:

Pilare Mujika160560

Gabiria:

Gabino Murua160803

Idiazabal:

Aloña Galarraga801375

Itsasondo:

Eduene Ayuso160615

Lazkao:

Iraida Martin883617

Legorreta:

Josune Amondarain...806026

Olaberria:

Nagore Goiburu160616

Ordizia:

Aitor Calvillo160563

Ormaiztegi:

Aitziber Murua880998

Segura:

Joseba Telleria889174

Zaldibia:


Rufino Iraola884353

Zegama:

Eduene Albizu801351



Errezeta



Martin Santamariak
emana

Oteñe erretegia

Gaintza

GAZTA TARTA

Osagaiak: (8 lagunentzako) hojaldrea, litro erdi esne gain, 200 gr. gazta fresko, 150 gr. azukre, 300 gr. marrubizko mermelada.

Tarta molde bat hojaldrearekin forratu eta la-bean sartu 30 minutuz (la-

bea 180 gradutan). Beste ontzi batean esne gaina, gazta eta azukrea nahastu eta montatu. Moldea bete eta kamara utzi hozten 30 minutuz. Behin hoztuta, mermelada gainetik bota eta jateko prest dago.



Bota bertsoa



Igor Eguren

Gaia: Zein kirol duzu gustokoena?

Doinua: "Nafarroako mendigainean"

Txiki-txikitan ekin nion ta beti egin dut kirola. Atletismoa, saski-baloia ta batez ere futbola, danetan txarra izanagatik ez zait batere axola egunen baten ikasiko det nola egiten den gola.

Behin futbolera aurkeztu nintzen, ez zidaten egin uko jantziak ondo zikintzen nitun nere ama da lekuko, asterik-aste jokatu gabe aukera noiz tokatuko behintzat gogoia jartzen nuela inork ez ditu ukatuko.

95 - 96 KIROL EKINTZAK



ORDIZIAKO UDALA

AEROBIC-a

Astelehen, asteazken eta ostiralean, 9-10, 10-11, 15-16, 18-19, 19-20 eta 20-21etan

MANTENU GIMNASIA

Astelehen, asteazken eta ostiralean, 19-20etan

MANTENU GIMNASIA LEUNA (3. adina)

Astelehen eta asteazkenean 16-17etan
Ostiralean 12-13etan



MAJORI
Polikiroldegia

IGERIKETA

Astelehenetik ostiralera 9-10etan
Astelehen, asteazken eta ostiralean 20-21etan
Astearte eta ostegunean 20-21etan

JUDO

Astelehen eta asteazkenean 17-18 eta 18-19etan

GIMNASIA ERRITMIKO eta PSIKOMOTRIZITATEA

Astelehen eta asteazkenean 17-18etan
Astearte eta ostegunean 17-18 eta 18-19etan

☎ 88 93 33

ORDIZIA

☎ 88 93 53

Debaldeko iragarkiak

Lana

☐ Mekanografia lanak makinak edo ordenadorez egiten dira. Eider. 161667.

Etxebizitzak

☐ Donostian pisua osatzeko neskak behar dira. 180099.

☐ 3 lagun behar ditugu Bilbon pisua osatzeko (Deustuko Unibertsitate ondoan). 882938 (Egoitz).

☐ Urretxun kanpokaldera ematen duen etxe bat dago salgai, egoera onean eta amueblatua. Dei iluntzeko 8etatik aurrera, 72 22 03.

☐ 2 lagun behar ditugu Bartzelonan pisua osatzeko (Arco de Triunfo ondoan dago). Dei 883310 edo 881337 telefonoetara Ainhoa edo Naiaragatik galdetuz.

☐ Ganbara bat salgai Tolosako alde zaharrean. Berritzeko. 42 05 36.

Salerosketak

☐ Kontzertuko akordeoia salgai, Pigini markakoa. Eskubian 63 nota eta 15 erregistro. Baju kromatikoarekin eta 120 baju. Deitu 3etatik 4etara edo 10etatik aurrera, 458706 telefonora.

☐ Autokarabana salgai. Mercedes-130, poliester, dutxa, sukaldea, frigorifikoa e. a. Txasisa eta motorra berriak ditu, 800.000 pzta. 450697 Jokin.



Egutegiak



BERTSOAK

✓ Gaintza:

Irailak 29, A. Egaña, S. Lizaso, Peñagarikano eta J. Sarasua, Pilotalekuan, 23:00etan. Gai jartzen, Peio Urretabizkaia arituko da.

MUSIKA

✓ Beasain:

Irailak 23, Jota jaialdia 'Navarra Canta' taldearekin, Ezkierdi Pilotalekuan.

ZINEA

✓ Beasain:

Ostirala 22, "Casper", 22:15.

Larunbata 23, "Casper", 19:30 - 22:15.

Igandea 24, "Casper", 17:00 - 19:30 - 22:15.

Astlehena 25, "Casper", 19:30 - 22:15.

"Goieniz"

Urriak 5, 'Exotica' (Atom Egoyan, Kanada 1994), 20:50ean.

"Gazteentzako zine emanaldia"

Irailak 28, 'Las cartas de Alou', 7:30.

Urriak 4, 'Solteros (V.O.S.)', 7:30.

'Exotica' - Atom Egoyan (Canada, 1994)

Filmaren istorioa klub baten, antzoki baten eta animalia denda baten inguruan garatzen da eta bertan lan egiten edo bertatik igarotzen den jendea da, hain zuzen ere, 'Exotica'-ri halako izaera bitxia eta deigarria ematen diona.

Hortxe ditugu Kristina, stresp tease dantzari gaztetxo, eta ikuskizuna zuzentzen duen Eric, elkarren arteko harremanak filmean, ondorio zurrunbilotsuak sortzen dituelarik. Francis, hazienda inspektore eta 'Exotica'-ko ohiko bezeroa, bere alabaren galerak utzitako hutsunea betetzen saiatzen dena. Thomas, txoridenda baten jabe berezia eta animalia bitxiaren estraperloan dabilena, bere bakardadea gainditzeko lagunduko dion gizonetako adiskide baten bila.

Kontakizunak --strep tease baten pare-- sekuentzia bakoitzean, ordurarte izkutuan egon den egoera narratibo edo iradokizun berri bat azaleratzen digu.

Soinuek eta indiar musika klasikoan nahiz herrikoian oinarritutako soinu-bandak, klubari darion giro fantastikoa areagotzen eta indartzen dute.

SAN MIEL JAIK

✓ Ursuaran:

Irailak 29: 19:30ean jaiei asiera suziri eta kanpaiekin. Ondoren afaria. 22:00etan Mus azkarra.

Irailak 30: 12:00etan Meza Nagusi. Ondoren

Lazkano eta Lizaso bertsolariak eta Joseba Iparagirre eta Amaia Oreja trikitilariak. 14:00etan bazkaria udaletxean. 17:00etan IV. Toka lehiaketa. Ondoren bertsolarien bigarren saioa. *Iluntzean* afaria eta trikitixa goizalderarte.

Urriak 1: 11:00etan Meza. 13:00etan aizkolariak. 14:00etan herri bazkaria, Goiburu eta Zeberio bertsolariak eta Ainhoa Munduate eta Olatz Nograrro. 16:30ean haur jolasak. 23:00etan jaien amaiera.

KULTUR ASTEA

✓ Lazkao:


Irailak 22, Periko eta Benjamin untxien filma, 17:00etan.

Irailak 23, Wu-shu erakusketa plazan.

Irailak 25, Gloucerterko jostunaren filma, 17:00etan.

Irailak 26, marrazki bizidunen arratsaldea 16:00etan; txokolate jana arkupetan 19:00etan; eta Kangchungtse ikus-entzunezkoa 20:30ean.

Irailak 27, Street Basket-a plazan 15:30ean; ibilaldia Frantziako kostalde atlantikotik zehar: Paris, Poitiers eta L'Perigor, ikus-entzunez-



Eizta
garraioak

Donostialdea - Tolosaldea - Goierri

Eguneroko zerbitzua
Paketeria

Dokumentuak

☎ 908 - 77 60 10

☎ 69 39 18

Egutegiak

koa 20:30ean.

Irailak 28, Tokolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak plazan 17:30ean; bu-ruhaundiak 19:00etan.

ERAKUSKETAK



MANU AIRAS

✓ Beasain:

Irailaren 22rarte, Manu Airasen erakusketa Aterpe tabernan.

Irailaren 22tik urriaren 1era, Rosa Mari Guillon eta Ninaren erakusketa, Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

Irailaren 23tik urriaren 13ra, Fernando Fernandez erakusketa, Aterpe Tabernan.

✓ Ordizia:

Irailaren 22tik urriaren 6ra, Agustin Bakero-ren pintura erakusketa, Barrenan.

MENDI IRTEERAK



Kilometroak 95

Beasaingo mendizaleak:

Irailak 23, kanpaldia Mendilatzeko (Orbaizeta) babesetxean. Harpeko kobazuloa eta Nive Beherobiko erreka ikusi-ko dira.

Urriak 1, Kilometroak 95, Donostian.

Ordiziako mendizaleak:

Irailak 24, Ernio.

Urriak 1, San Pedro-Ulia-Donostia (Kilometroak 95)

Idiazabalgo mendizaleak:

Irailak 24, perretxi-kuak: erakusketa eta gastronomia.

GOARDIAKO BOTIKAK

Irailak 22: Azpilikue-
ta; **23-24:** Arriola, **25:**
Jauregi; **26:** Larnaga; **27:**
Cuesta; **28:** Arriola; **29:**
Urbizu; **30-urriak 1:**
Cuesta; **2:** Atorrasagasti;
3: Azpilikueta; **4:** Jauregi;
5: Larnaga.

Ordiziako azoka



Eguraldi txarra eta galeperrak nobedade

Eguraldi txarra, euria izan zen protagonista asteazkeneko azokan. Produktuei dagokienez, berriz, bada zer kontatua. Hasteko, galeperrak izan ziren nobedade. 6 galeper, bakoitza 250-300ean saldu zen. Tortolak (4), 500ean. Arkumea (16) 725-750ean eta untxia (2 zaku) 235ean saldu ziren. Perretxikuetan onddoak bakarrik azaldu ziren. 120 kilo kanpokoak eta 5 bat kilo bertakoak, guztiak, 2.500-3.000an salduak.

Bertako produktuetan ere izan zen nobedaderik: lehenengo menbriloak 200ean saldu ziren. Egin-dako menbriloa (sagarrena) 700ean kilo. Melokotoiak (150), gaztainak (300-350), udarak (160), pikuak (100-250), tomatea (150-200), lekak (300-400), basakanak (350-500), ozpinetako piperrak (400), Gernikako piperrak (125), intxaur berriak (500) eta urrak (300-400) ugari izan ziren. Indabei dagokienez, zu-

riak eta gorriak, aletutakoak, 600-1.000 pezeta bitartean saldu ziren. Beltza, 900-1.200ean.

Kanpokoetan aranak, paraguaiok eta sandia desagertu dira. Berrietan berriz, piperrak (piko eta pikiloa) 125ean saldu ziren. Kaja erosiz gero, zertxobait merkeago, 100-110ean. Gora egin zutenak, kiwiak (350-380), meloia (95-125), mahats moskate-la (275) eta piper berdeak (250) dira. Behera egin zutenak berriz, platanoa (250-275), azalora (275-350) eta piper morroiak (175). Tomatea (250) eta lekak (350) mantendu egin ziren.

Ordiziako azoka bultzatu, piztu nahi dutela ez da gauza berria. Gauzak honela, produktu bereziak izaten dira asteazkeneko eta gaurkoan ahatekiei egingo diegu tarte. Magre edo ahatearen bularra 1.500ean saldu zen, solomiloa 1.000an, gibel freskoa 5.500ean.



✓ Eguneroko menua, 750 pzta.
✓ Karta, batz bestea, 2.000 pzta.
☎ 18 00 19 ATAUN S. Martin

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba
MOTA GUZTIETAKO: Pentsuak, Ongarriak, Lantresnak

Euskalerria Kalea
Industrialdea

☎ 88 04 15 ORDIZIA
☎ 16 07 07 OLABERRIA

□GAINTZAKO V. DANTZA ASKATU TXAPELKETA ospatu-ko da datorren irailaren 30ean, gaueko 10:30ean, Herriko Plazan. 14 urtetik gorako edonork har deza-ke parte. Zozketa egin ondoren bikote parte hartzaile bakoitzari Fandango eta Arin Arina bat joko zaizkie trikitilariak lagunduz. Herriko usadioaren arabera jantziak egon beharko dute. Erritmoa, elkartzea, pausoak eta itxura hartuko dira kontuan. Parte hartzaile kopurua 10 bikotekoa izango da. Sariak: lehenengoa- rentzat 16.000 pezeta eta txapela eta zapiak; bigarrenarentzat 13.000 eta trofeoak; hirugarrenarentzat 10.000 eta trofeoak eta 4. rentzat 8.000 pezeta. Beste partaide guztiei

6.000 emango zaie, Izena emateko epea 26ra bitartean egongo da zabalik, 8:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Telefonoa 88 95 64.

□ORIXE BERTSO PAPER LEHIAKETA antolatu du 8. aldiz Orexa-ko Udalak, Euskara Batzordea bitarteko. Hiru talde izango dira:

* A taldea: 14 urte bitartekoentzat, adin hori baren. Irabazleak 25.000 pezeta jasoko ditu.

* B taldea: 15 urtetik 20 urte bitartekoentzat. Saria 50.000 pezeta.


* D taldea: 21 urtetik gorakoentzat. Saria 75.000 pezeta.

Bertso jartzaileak gu-

txienez 8 bertso bidali beharko ditu eta 12 gehienez. 15 urtetik behera-koek, gutxienez 5. Partehartzaile bakoitzak nahi adina bertso-paper bidal ditzake. Gaia librea da, baina bertsoak originalak izan beharko dute. Lanak urriaren 13a aurretik aurkeztu beharko dira (Orexako Udala, 'Orix' bertso-paper lehiaketa, 20490 Orexa). Originala eta 4 kopia bidali beharko ditu partehartu nahi duenak, kartazal itxi batetan. Eta beste batean, egilearen izena, helbidea, telefonoa eta beharrezko beste xehetasunak. Egilearen izenordea, zorro bietan argi eta garbi ezarri beharko da kanpokaldetik. Informazio gehiago 68 20 29 telefonoan duzu.

□TAI-CHI IKASTAROA BEASAINEN. Iaz bezala Tai-Chi ikastaroa emango da Ballet Eskolan. Klaseak astelehenetan eta asteazkenetan, 20:30tik 22:00etara izango dira. Irakaslea Josune Alba, Donostiako Tai-Chi eskolakoa izango da. Matrikula zabalik. 882817.





*i*txura baino
gehiago...

ANTZA

FOTOKONPOSAKETA

INPRIMATEGIA

Industrialdea 1-2 • ☎ (943) 37 15 45 - Faxa: (943) 36 10 48 • 20160 LASARTE-ORIA

Goierri osoa museo

Hasieran Ormaiztegia izan zen, Zumalakarregi handiari Diputazioak jarri zion hori. Gero, berriz, Zeraingoa etorri zen: herri-kartzela, zerrategi zaharra eta lehengo baserrietako bizimodua hain ederki jasotzen duen museoa; oraintsu, Segurako herria erakusten dizute, etxeak eta historia elkartzen dituen bisita gidatua.

Garai batean, fabriketan burnia ugari eta baserrietan esnea franko ateratzen zenean, barregarri samarrek irudituko zitzaizkigun kontu horiek denak. Gaur egun, ordea, industriak lanposturik sortu ez eta baserria galbidean dagoela, zer edo zer asmatu behar, gure herria biziko bada: baserriak hotel koxkorak ari zaizkigu bihurtzen eta, martxa honetan, aurki Goierri osoa museo.

Prozesu honek baditu bere ongaitzak eta itzal-argiak: batetik, gure bazterrak, tradizioa eta ondare guztia aberastasuntzat hartzen hasiak gara, behingoz, eta bestela botako genituzkeenak gordetzen ari gara; beste aldetik, ordea, dirua nondik datorren hara begira jarri eta itsutzeko arriskua ere badugu: kamarero-herria bihurtzea edo bisitari kanpotarrentzako basakristau-erreserba. Argi ibili.

Xabier Mendiguren Elizegi

Zer moduz kurtso berria?



Xabier Aranburu
11 urte, 5. maila
idiazabaldarra

Ez zait inporta eskolan hastea, ondo pasatzen dut. 5. maila errepikatu behar dut eta nahiko erraza egingo zait aurtengoa.



Jon Ander Zelaia
8 urte, 3. maila
ordiziarra

Ondo hasi naiz, baina ez neukan hasteko gogorik, oporretan ohituta bainengoen. Oraingoz hala ere lan gutxi egiten dugu.



Maider Garzia
9 urte, 5. maila
ordiziarra

Ondo hasi dugu, baina neukan gogo gainera berriz klasera joateko, oporretan aspertu egin naiz. Ez dut uste kurtso zaila izango denik, baina hori gero ikusiko dugu.

Bitxikeriak

Ataungo herriaren sorrera

XIII eta XIV. mendeetako jentilbaratza inguruko borrokak tarteko, Lazkaoko Jauna zen Castillak zuen jarraitzailearik haundiena. Ataundar eta beronen arteko auzi eta eztabaidak ugari izan ziren; bateko, apaiz erdalduak izendatzen zituelako, besteko, ataundarren uzta eta emaitzarik gehienak berak eramaten zituelako, eta azkenik, San Martingo eliza eraikitzean bere armaria jarri nahi izan zuelako. Ataundarrek ez zuten etsi eta, 1584ko ekainaren 15ean Valladoliden emandako erabaki batez, Ataungo herriaren armaria ezarri zen San Martingo elizako horman. Hori zela eta, azkeneko urteotan festa nagusiak egun horretan ospatu izan dira. 1616. urtean izendatu zuten Ataun herri.


IKAS EZAZU MEKANOGRAFIA



**meca
rapid**

Urdaneta, 23-1. ☎ 887278 **ORDIZIA**

Erakusketa
Sukaldeko tresnak



Mariartz, 4
Tfona: 88 86 84

BEASAIN



**GOIATGI
OKINDEGI**
*Ogigintzan
onenak!!*

Etxezarreta z/g
ORDIZIA ☎ 160501


- ♦ Egurrezko labean egindako ogi gozoa
- ♦ Opil finak
- ♦ Eguneroko ogia
- ♦ Ogi bereziak
- ♦ Ogi artisauak

Barandiaran Taldea, 2
ZALDIBIA ☎ 880737



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA



Rufino Iraola
Garmendia

Abuztuaren 18an bete ziren Iztueta hil zela 150 urte. Badakizue, bestalde, efemeridea-ri pixka bat aurea hartuz, Zaldibiko herriak omenaldia egin ziola maiatzean. Beste ekitaldi ugariaren artean, Iztueta Fundazioak liburua argitaratu zuen Iztuetari buruzko lanekin. Liburuaren bigarren partean, "Miscelánea" izenekoan, bada Iztuetak bere jaioterriari eskaintzen dion idatziaren aipamen bat. "Zaldibia en la obra de Iztueta" du izenburua, eta Jose Garmendia da egilea. Guk, handik hitz batzuk hartuz, komentariotxo egin nahi genuke. Honela hasten da:

"Zaldiviako Erri labur ta medarrean (zeina dan nere jaiotokia) arkitzen dira eun ta amalau etxe. Oietatik laurogei ta amasei, nekazaritza darabiltenak, eta beste emezortziak dira, plaza-etxe lurrik ez darabiltenak eta baso bagekoak; zeintzuben bizi diran mila eta irureun anima bezalatsu".

Hizkera-moduari dagokionez, zerbait azpimarkatu nahi genuke:

"Zaldiviako" esaten du, "A" itsatsi eta guzti. Ziur ez dakigu, baina, seguru asko, hitz egiterakoan "Zaldibiko" esango zen Zaldibian Iztuetaren garaian ere. Guk ezagutu ditugun herriko zaharrenei ere ez diegu sekula santan "Zaldiviako"-rik entzun.

Klasiko zahar guztiengan bezalaxe, Iztuetarengan ere "zeinismoa" izugarritzko indarra du (zeina dan nere jaiotokia).

"Lurrik ez darabiltenak" oso forma normala eta ezaguna da zaldibitar gazteagoontzat ere, baina ez hala "nekazaritza darabiltenak".

"Bagekoak" forma aspalditik aldendu zen, dudarik gabe, zaldibitarren ahotik.

"...mila eta irureun anima bezalatsu". Batetik, "bezAla" eta ez "bezEla" erabiltzea da ha-

Zaldibia Iztuetaren obran

rrigarria; bestetik, "bezalatsu" kantitatearekin erabiltzea. Gaur "hirurehun anima inguru" esango genuke.

Fija gaitezen, azkenik, "larrogei" dioela, ez "laroge".

Larrunarri

Gaur egun Txindoki eta, batzuetan, Nañarri esaten diogun mendiari Larrunarri deitzen dio: "Aralarko aitz goititu Larrunarri deitzen zaionaren muturretik ikusten da argi eta garbi Gipuzkoako...".

A) "Haitz" hitza ez da erabiltzen jadanik Zaldibian, toponimikoetan ez baldin bada.

B) "Goititu" ez dugu ezagutu ere egiten.

C) Bestalde, kurioa da hitzen ordena: "...aitz goititu Larrunarri...". Guk, seguruenik, "Larrunarri haitz goititu..." esango genuke.

D) "Deitu" aditza ezaguna genuen, baina ez erabilia. Guk beti "esan" edo "hots egin" erabiltzen genuen. "Deitu" eta "entzun" (eguneroko hitzegian) azken hogeita hamar urtetan sartu dira gure herrian.

Saturdi

"Gauza jakina Santu oni maitasun andia artu izan ziotela Euskaldunak, eta batez ere Gipuzkoatarrak. Egia garbi onen sinismenerako begiratzea baizik ez da Nafarroakin mugatzen dan Erri txiki Zaldiviakora; non ikusten dan argiroki, bertako bitartekotzat artu izan zutela San Saturnino; zein negana joaten da erri guztia jaiera andiarekin premina or-

du guztietan; eta beraren izen gozoa ifinten ere diezate seme ta alaba askori, Santi andi onengan fede oso bete dute-lako. Beragatik ezagutzen dira Zaldivian ainbeste Saturnino eta Saturnina". Eta jarraitzen du: "Baita ere izen bereko elizatzoren ondoan bi etxe prubetar deitzen zaientenak batari Saturdia eta besteari Elizegi; zeintzuben adierazten daben argi eta garbi, ezen, Erri onek bere Santu Godartaritzat autatu izan zebala..."

Iturri eta errekek

"Zaldiviako erriaren mugapean arkitzen dira berrogei iturri eta geiago, ur garbi gezagoz ona iori ematen dutenak; ugaio iturriak badira bost, zer grinatakoak diraden inork azalkeatu bagekoak. Iturri oetatik egineratze direnak ogeita bi erreka ziztor biribiltzen zaiotza bertako ibai nagusiari, zeinari deitzen zaion Osinberderko ibaia; eta au jaiotzen da erri onen mugapeko osin zulo andi batean, azpiti gora ura botatzen duela irakiten ari oi dan lapikoak bezalaxen. Gauza begiragarria eta miraritsua da txit; aitz goititu onek ber erpinetik ishuarten daben ur garbi ain ioria nondik eta nola datorren burutaztea..."

"...Zaldiviako amorrarriak non nai du jao andia, eta edozein temporatan egiten dau librak iru erreal..."

"Izanik bada ibai maitagarri au, urtearen sasoi guztietan amorrain pin izokitsuak ain ori ematen dituenaz ez da mingarri berari obeto kontu ez egitea, orain berrogei urterainoko gizonak egin oi zioten bezala? Bai, mingarri ez ezik negargarri ere da, onelako ibai aberatsa sare, eta amu debekatuakin bigabekiro galtzen ikustea; eta ilgarrigoa da, urak agortu, eta kare bizi sokaranak osin zuloetan botatzea".

Segurako Ondarre, gaztai onen ondare

"Ordizian irabazterik ez nian inondik inora espero, baina exerita nengoen tokitik nere gaztaia ezagutu egin nian aukeratu en artean. Bostgarrenetik atzera hasi eta 4garrena, 3garrena, ba kitto, etzeok ze eiñik!" pentsatu zuen Felixek bere artean. Baina irabazlearen izena entzutean, poza, urduritasuna... denak batera nahasian zituela han atera zen Ordiziako frontoira txalo zaparrada artean.

Felix Goiburu Seguran jaio zen eta bertan bizi da, hainbat artzai belaunaldi ezagutu dituen Ondarre baserrian, Maduran, Oria ibaiaren ertzean. Bere aita, Xantiago Goiburu, 11 urte besterik ez zituela joan zen artzai Bizkaiara.

Urbiari lotuak

Xantiago 25 urte pasatakoa da Urbian, Felix bera ere joaten zen motikotan bakazio garaian. "Gaur ez gara Urbiara joaten. Hango belarra hemen behekoa baino hobea da, fiñagoa, altuerak zerikusi handia du. Baina garai batean ez bezala, behean gelditzen diren ardiei berdeaz gain, pentsua, oloa, baba... ematen zaie, eta honela konpentsatzen dugu belarrean dagoen alde hori".

Gizon hau gorriak eta bi pasea da gaztaroan. Baina langilea eta diziplina handikoa izateak bizitzari aurre egiten lagundu dio. Bere inguruan lanetik libratzea zaila da, oso perfektionista da bere lanean, jenioa ere ez du nolanahikoa. Baserriko lanak direla eta, bere semeok ere nahiz protesta ugari egin, berari zor diogu horrenbeste gauza egiten ikasi izana. Ez da geldi egoteko jaiotakoa gure aita. Ezer gabe hasita honela lortu ditu hainbeste gauza bere bizitzan. Berak dioen bezala, "burua ur gainera atera, ahoa bete arnasa hartu, eta berriz ur azpira". Orain esaten den bezala, nire zaharra, umore onean ere sarritan egoten da, eta adarra jotzen ere ederki asko daki. Gainerantzean kirola gustatzen zaio, herrian lagunekin poteren bat hartzea ere bai, baina gehiena animaliekin gozatzen du.

Felix Goiburu, Felixen seme zaharrena



Xantiago eta Felix Goiburu aita-semeak Ondarren. Bata zein bestea Ordiziako gaztai txapelketaren irabazle. Ondorengoren bat ere animatuko ahal da.



Xantiago Goiburu 1970ean txapeldun geratu zenekoa. 1995ekoan ere izan du parterik.

Baserriak tire berezia

Ez dugu nolanahiko artzaia Felix. "Txiki txikitatik animalia artean ibilita albaittero izan nahi nuen, baina etxean sobrare, animalien mundutik atera nahi ninduten eta enpresariales ikasketak egin nituen. Beti izan dut frustrazio txiki hori". Baserriak eta ganadu munduak ordea, tire berezia zion. Laster jarri zituen koneju granja eta ondoren txahal eta behiak ere bai. "Baina Madura neguan oso potzutsua da eta behien pisuarekin berehala lokatzen da zelaia. Ardia askoz egokiagoa da Madurarako". Honela, orain 3ren bat urte hasi zen Ondarre baserria be-

rriro ardiz inguratua ikusten. Gaur 134 buru ditu. Erdiak Urbasatik eta beste erdiak Izarraitzetk ekarriak. Uda partea batzuk Santa Barbara barrereko hariztietan eta besteak Zegaman pasatzen dute eta negua berriz Ondarren.

Lehenengo aldiz txapelketara

Aurten lehenengo aldia da Felix gaztai lehiaketara aurkezten dena. Legazpin irailaren 3an 3.

gelditu ondoren irabazi zuen irailaren 6an Ordizian. Ez zen izan Ondarre baserriak ezagutu zuen lehenengo irabazlea. Bere aitak ere, ardiak saldu aurretik, 1970ean irabazi zuen Ordiziako gaztai txapelketa. Bere aitona ere domina bat lortu zuen Idiazabalen 1923an egin zen gaztai txapelketa batean.

Idiazabalgoa ketua

Aurten 650-700en bat gaztai egin ditu, 1000ren bat kilo inguru. Denak ketuak. "Hemengo gaztaiak bateratze prozesuan badaude ere, berezko Idiazabal gaztaia ketua da eta partzoneriko herri eta lurretan egindakoa (Segura, Zegama, Idiazabal, Zerain, Mutiloa...). Bateratzeak, jatorrizko deitura izateak publizitate aldetik eta, prestijioa dakarkio, artzaioek ere hobeto antolatutak gaude, geure ingurutxo dugu etab. Baina gaztai bakoitzaren berezitasunak berdindu nahi izatea ez da ona. Ketzearena adibide bat besterik ez da".

Felixek ketegi bezala berak horretarako moldatu duen silo bat erabiltzen du. "Haltza eta pago adar hezeek sortutako keak pixkanaka eman behar dio gaztaiari, azalean bakarrik, barrura pasa gabe. Hori bai, garrik gabekoa izan behar du, kea bai baina berorik ez. Ketzeak, gaztaia babestean gain, beste ikututu bat ere ematen dio. Tradizioa horrela da hemen".

 Joseba Telleria

Ba al dakizu?



□ FOTOETXE argazki dendak (Beasainen dago) 2. egin du, argazki dendei dagokien Europako erakuslehoio edo eskaparate txapelketan. Beasaingo jaietan jarri zuten erakuslehoio edo eskaparateagatik eman diote saria hain zuzen ere. Europako txapelketara sailkatzeko txartela, Espainia mailako txapelketa irabazi ondoren lortu zuen Fotoetxek. Joxe Mari Telleriak adierazi digunez, 17 estatu eta 51 partehartzailek hartu zuten parte. Saria Olympus etxeak ematen du.

□ ARGIDER MUJKA KARTZELAN sartu zuten irailaren 14an, Baltasar Garzon epailearen aginduz. Abuztuaren 20an Idiazabalen izandako detentzioen ondoren, Argiderren etxera joan ziren goardia zibilak, baina Argider ez zegoen bertan. Joan zen ostegunean bere borondatez aurkeztu zen Entzutegi Nazionalen. Argiderrek deklaratu hasi aurretik, epaileak kartzelara joango zela adierazi zion. Deklarazioa euskaraz egin zuen. Egun horretan bertan, Lazkaon, Guardia Zibila Erzile baserria erregistratzarekoan izan zuen jarrera salatuz HBk aurkeztu zuen mozioa atzera bota zuten Lazkaoko Udala osatzen duten beste alderdiek.

□ PATXI ORMAZABAL Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro kontseilaria Goierriko enpresariekin bildu zen irailaren 8an. Industria garapena eta aberastasunaren sorrera ingurugiroarekin bateragarriak egin ditzaten eskatu zien Ormazabalek enpresariei. Era honetan, hondakin industrialak gutxituko duen egitasmoa aurkeztu eta bertan sartzeko gonbitea luzatu zuen.



□ GIPUZKOAKO NEKAZARITZA EKOLOGIKOAREN I azoka ospatu zen Zerainen irailaren 10ean. Jende ugari hurbildu zen eguraldiak lagundu gehiegi lagundu ez bazuen ere. Era honetan, "Zeraingo herriak eta Biolur Gipuzkoa Elkarteak azoka honi emandako harrera, eskertu nahi diegu bai zeraindar guztioi, bai inguruko herrietatik etorritakoei".

□ EHIZEKO POSTUAK. Urtero bezala, Seguran izan zen irailaren 10ean Partzoneriko ehiz postuen enkantea. Diru gehiena lortu zuten postuak hauetxek izan ziren: Larrebil-



- Maila guztiak: euskalduntze, alfabetatze eta EGA
- 2 - 3 eta 5 orduko erritmoak
- Bekatze sistema eta diru laguntzak. Galde ezazu
- 16 urtez gorakoentzat

MATRIKULALDIA: irailaren 4tik 20ra arte

L.S. Martin Pl., Kultur Etxea, 1.a ☎ 889094 BEASAIN

GOIERRITARRA



88 96 12

Faxa: 88 27 19

IKASTEK AKADEMIA

95-96 IKASTURTEA

- + Maila eta arlo guztiak
- + Laguntza pertsonalizatua
- + Irakaslego trebatua
- + Kalitate eta profesionaltasuna

IKASTAROAREN HASIERA: urriak 2
Informazioa: ☎ 16 01 20
Joan Iturralde, 5 BEASAIN

go 18ak 775.000 pzta. Apotako 9ak 651.280 pzta. Agiñarango 5ak 630.000 pzta. Iturgaingo 6ak 610.111 pzta. Agiñarango 1ak 601.000 pzta. Apotako 13ak 575.000 pzta. Apotako 11k 566.500 pzta. Agiñarango 1ak 554.000 pzta. Larrebilgo 4ak 531.000 pzta. eta Larrebilgo 14ak 460.000.

IMARISOL LEGORBU-
RU ordiziar pintorea irailaren 18an hil zen, gaixotasun baten ondoren. Hainbat erakusketetan parte hartu zuen artista Donostiako "Colegio Aleman"-en irakasle zen. "Goiart 88"-ren bultzatzaile ere izan zen.

IGIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETAren bigarren fasea urriaren 20an jarriko da martxan. 7 goierritar izango ditugu lehian: Mikel Aranburu eta Aitor Sarriegi lehen fasea gainditu ondoren, Jose Ramon Elortza, Mikel Mendizabal, Joxe Munduate, Iñaki Murua eta Xabier Zeberio. Zorte on guztiei!

IGOIENIZ, Goierriko Zine Klubak urriaren 5ean hasiko du aurtengo bigarren zikloa. Lehen zikloak izan zuen harrera bikainaren ondoren, lanean gogor jardun dute azken hila-bete hauetan hastear dagoena ahalik eta ondoen prestatu asmoz. Zine Klubaren laguntzaileak 60tik gora izan ziren lehen zikloan. Bigarreneko ere bonoak salgai daude jadanik Beasaingo Kale Nagusiko 40 zenbakian, asteazketan arratsaldeko 7etatik 9etara. Bestalde, eguna, lekua eta ordua mantendu egiten dira: ostegunetan, Usurbe Antzokian, 20:50ean. (Agendan izango duzue aurrerantzean berri gehiago).

IMUTILOA. Pilotalekua egiteko obrak hasi dituzte, Gerriko izeneko aldean, Murgiondorako bidean. Sanjosetarako amaitua egongo omen da.

IMUNDUKO TRIATLOI TXAPELKETA izango ditugu

lau goierritar Estatuko selezioarekin: Etor Mendia, Aitor Eskalante, Jose Manuel Rivas eta Igor Mertxan. Urriaren 1ean izango da txapelketa. Egin beharko duten lana honakoa da: 4 km. igerian, 120 km. bizikletan eta 30 km. korrikan. Arrikutz Triatloi Taldeko partaideak gogoz doaz bertara. Zorte on!

IZEGAMA TXAPEL-
DUN. Herriarteko herri kirol txapelketan aurtengo irabazlea dugu Zegama. Irailaren 9an jokatu zuten finala Ordizian Seguraren aurka. 56 segundu atera zizkion Segurari. Irabazleak hauetxek dira: Jose Inazio Flores (aizkoran), Arakama anaiak (trontzan), Ander Perez (korrikan), Jesus Mujika (txingatan), Inazio Katarain (koskola jokoan) eta Santi Katarain (harrijasotzen). Hirugarren Zerainek egin zuen, eta jarraian Olaberria eta Beasain gelditu ziren.

MAIZTEGI ARMATEGIA

Ehizerako eta arrantzarako tresnak

Urdaneta 21

☎ 88 13 15

ORDIZIA



ETXE-ZVRI
SAGARDOTEGIA

- Bataio, jaunartze, lagunarteko eta negozio bazkariak
- 2.000 pztako menu bereziak
- Karta

Sagardoa urte guzian txiritik
Aurrez deitzea komeni da

Tfnoa.: 88 20 49

OLABERRIA

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



GOKINDETA
GARONA

K. Nagusia, 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19

☎ 88 77 58

☎ 88 72 79

☎ 16 00 44

BEASAIN

LAZKAO

ORDIZIA



KOLDO
TRIKITIXA
ESKOLA

Giro jator eta atseginean
ikas dezazun zuk aukeraturikoa

☎ 88 50 85

LAZKAO

UNTXUNDEI
Garajea



OSINALDE
Karrozategia

☎ 88 28 21 - 16 07 06
ORMAIZTEGI

60 URTETIK GORA DARAMATZA IDAZTEN "AZTIRI" GABIRIARRAK Julian Alustiza: euskaldun zaharren mintzaera

"Thesbide ez baino arnasbide" gisara hasi zen idazten 36a baino are lehenago. Gabiriarra dugu, 1913an jaioa eta "Aztiri" gisa sinatu ohi du. Sermoigintzaz gain, "Lihoaren penak eta nekeak" eta "Euskal baserriaren inguruan" ditu berebiziko obrak. Eskatzen ez ezik, ematen ere ez dira motelak frantziskotarrak.

82 urte ditu eta oso pozik bizi da Arantzazuko frantziskotar anaidian. Bere adinerako buru argi-askea duela aurkitu dugu, "Egunkaria" eta "D.V."-ko "Gure Artean"-ekoak irakurtzen dituela, baita liburu batzuk ere: Gandiagari harrapatzen dio esanahia, baina olerki-giroa motela dakusa. Batuzale bada ere, euskalkien aldekoa dugu. Oraindik jaiero egiten du bere 5-6 minutuko sermoitxoak, piska bat burua argitzeko, askotan dozena bat entzule izan arren.

Arantzazuren goramenez

Julianek baditu olerki mordoska bat, baserriaren inguruan atondutakoak, baina, damutzen ez bada, hilondorenerako utziko ditu argitaratzeko. Arantzazuren defentsa sutsua egiten digu, Arantzazu oso herrikoa izan baita, du-darik gabe. Gerraondoan batez ere, ia frantziskotarrak bakarrik geratu ziren euskal kulturaren alde lanean, beneditar, karmeldar (Onaindia, Akesolo...



Euskal mundu eta kulturarekin kezkatutik dago goierritarra.

Valladoliden zela, Dueñasko gartzelan ezagutu zituen), kaputxino (izugarrik-zigorak jasan zituen euren ordenak, naparrak eta euskaldun jatorrak ziren asko, Ataungo Bonifazio, e.a. Ameriketara bota zituzten) eta Josulagunekin (Orixe, e.a. tartean) "lehian".

Itzal handiko gizonak eman ditu Arantzazuk. 85 urterekin Valladoliden hil berria den Inazio Mitxelena Omaetxeberria bat esaterako. "Hamaikaxoren irakaslea, ez da gehiegi ezagutera eman, baina euskara gaitan oraingo Euskaltzaindia guztiak adina zekien. Nire ustez, aparteko intuizioa zeukan hark, gertatzen da gauza askotara zabaltzen eta nahasten zela, hura hain maitea zuen euskarara bakarrik jarri izan balitz, auskalo! Nik eza-

gutu dudak azkarrena. Hemen kongresu bat egin genuen; entzun zion garaiko munduko Mariologorik handienetakoak, frantziskotar kroata batek, eta txunditurik geratu zen Omaetxeberriaren hitzaldiarekin".

Pastoralgintza-lanak

Alustizak ilusio piska bat eta ezagumen bat bazuen euskal literaturaz, Omaetxeberriak bultzatzen zuen, Arantzazun olerkiak argitaratuz, baina pastoralgintzara lotu eta irauli behar izan zuen. "Font Andreu apezpiku katalanaren bidez lortu genuen lekutxo bat euskararentzako Radio San Sebastianen; batez ere gaisoek eskatzen zutelako aitzakia jarritz, hitzaldia ematen genuen. Iparraldean bozkarioz entzuten zutela eta Hegoaldeko tabernetan e.a. beste gauzarik ez zen euskaraz irratian". Hizkuntzarentzat giro hobea etorriko zirelakoan jardun zuten.

Sekula ez du oztoporik aurkitu ez-tarrian eta, elebrietan, beti aurrez idatzi ditu sermoiak. Burgosko katedralean ere emana da bederatziurren oso bat. Arantzazun, pakea gaitzat zuela emaniko hitzaldiak makina bat hots atera zituen. Gipuzkoa eta Bizkain ez ezik, Nafarroa ia guztian ibilia da frantziskotarra misioak ematen. Añoveros nafarra ere han ezagutu zuen, berak ezagututako gizonik gizonena. "Esaten dugu euskalduna behar dugula obis-potzarako. Beste Añoveros bat hartuko nuke nik. Hark bidea ikusten zuenean, inork ez zion atzera eragingo. Franco ez zen berarekin atrebitu".



MAIZPIDE
euskaltegia

IKASTAROAK URTE OSOAN

- **BARNETEGIA:** egunean 6 klase
- **BESTE BATZUK:** egunean 2, 3, 4 klase (goizean, arratsaldean, iluntzean)

MAILA GUZTIAK HABEren laguntzaz

Matrikula epea irekita. Deitu eta eman izena!

☎ 88 92 31 / 32

LAZKAO

Anekdotarioa osatuz

Anekdotak ere baditu, Gipuzkoan eta Bizkaian ibilitako garaioak. *"Behin, Ondarroan gipuzkeraz ari nintzen sermoia ematen (hango apaiza zegamarra baitzen eta ohiturik baitzeuden) baina umeekin aritu eta hauek ez zirela isiltzen. Bizkaieraz hasi naiz eta hor bukatu ziren hango istilutxoak".*

"Esaten dugu euskalduna behar dugula obispotzarako; beste Añoveros bat hartuko nuke nik"

Misioetan infernuarekin mehatxatzen zekiten fraileak ere baziren. *"Ezagutu nituen gure artean ere oso gogor sartzen zirenak gauza horiekin. Ez dakit zergatik, baina ni ez, infernua aipatu, zeharka aipatzen nuen misioetan. Gizona librea da, askatasuna da Jainkoak gizonari eman dion dohairik handiena".*

Sermoilari on bat herriko jai-elizkizunetara etortzea gauza handia zen, egungo bertso-saio on baten pareko. *"Seguran beti Arantzazuko praillea nahi izaten zuten. Nik ez dut sekula jendea gogor hartzeko nahirik izan. Esan dudana hitz gogorre-na Zegaman. Pekatuari buruz ari ginen eta ez dakit nondik nora atera zitzaidan: 'Jaungoikoaren sokor-mazoak*



kirten luzea dauka eta halako batean emango digu ematekoa'. Zer da eta aste hartan bertan 56ko izozte izugarri hura, pinuak erreta geratu zirenekoa. Mila aldiz esan zidan gero bertako parrokoak, berriz ere esan behar nuela".

Euskaraz bizitua kontrako giroan

Lehen ikasketak Arantzazun 1923an, teologia Oliten, 1936an apezte zen Valladoliden eta bakar-bakarrik, kidekorik gabe egoteak eraman zuen bere lehen literatur produkzioak han sortzera. Hemen zegoen giro itogarri eta berezian baino lasaiago zeuden han gerraostekoan, nahiz eta sustu bat izan zuen etxerako kartak euskaraz idazteagatik. Sermoigintza Larrinaga maisu hil-berriarekin ikasi zuen, ahoskatzen, abotsa ateratzen, e.a. Haren eskolak mesede handia egin zion.

Gazterik bataiatu zen Alustiza olerki eta elertigintzan. *"Andramariaren iturriak", "Arantzazuko Andramariaren pagopean", "Zeken alena", hasieratakoak ditu. Harez geroztik "Iturrian eta beste" (Egan-en) eta "Sermoia" (Euzkere-an), 50. go hamarkadan, batipat "Arantzazu" eta "Euzko Gogoa" aldizkarietan ere kolaboratu izan zuen; batuaren zale izaki, "Goiz-Argi"-n kolaboratzeari muzin egin zion, "H"-aren aurka ziharduelako. Bere azken liburu argitaratuak "Lihoaren penak eta nekeak" eta "Euskal baserriaren inguruan" harribitxiak dira, 81 eta 85koak. Erreferentzia puntu eta itzaltsuak.*

"Liñoarena gutxik irakurri dute, zorionez edo txarrez. Gaia zaila eta galdua da, baina ni poztan naiz garai hartan egin nuelako, gaur egun ezinezkoa litzateke. Hor azaltzen diren berriemaile gehienak (liñoa ezagutu edo landutakoak) hil dira. Baserriaren ingurukoa askoz errazagoa da eta zenbaitzuk esan didate hiruzpalau aldiz irakurri dutela. Euskara batuazalean eta azkenaldian idatzi nituen, baina testigantzak 30 urte aurreagoak nituen".

Herririk herri eta etxerik etxe eskaera egin lehendabizi eta erraztasunarekin hitz egiten zuten adinekoen apunte ugari jaso zituen bi liburu horietarako. Berak bezalakoek herri-jakituria jasotzeko eginiko landa-lanak jarraitzailerik behar luke. *"Egiten dute piska bat. Aresti, esate baterako: erdalduna zela zioten, baina hark muina harrapatu zion euskarari. Aresti izan da niretzat promesarik handienetakoa, gehiago egin zezakeen bizi balitz. Patziku Perurena ere oso gustokoa dut, hanka sartuko du batzuetan, baina horrek jasotzen du herriaren aparteko gauza hori".*

Oratoria hobearen beharraz

Ezagutu dituen hizlari hoberenak, Agirretxe errezildarra (elebietan), Salbatore Mitxelena, Julian Lasa, Arrasateko Arabaolaza... Gaur egun, politikoez dituzte pulpituak, komunikabideak dira erlijioa. Behar-beharrezko "Oratoria hitza, keinua eta isilaldia da" eta ez zaizkio gustatzen egungo "sermoilariak". Bere teologia apurrarekin ere ezin die jaso politikari askori, ez daki zertaz ari diren, ez dira isiltzen. *"Ez dira batere prestatzen, gero oso abstraktuak dira. Nik beti izan dut kezka hori: herriak jaso dezala esaten dudana. Badira herriak Nafarroan behin bakarrik bisitatu ditudanak, handik 40 urtetara nik esandakoak gogorarazi dizkirate. Gure probintzian erdaraz ezagutu dudana oradore hobere-na Arbide zen, Oriokoa, aparteko mailakoa. Hark sermoi bat egin eta jeitsi zenean, 'Padre Arbide, cuando nos va a pedricar (sic) a nosotras?', galdetu zioten tutik ulertu ez zioten emakume batzuk".*

 Jon Arano eta Ramon Ugalde

LAZKAO

Kultur astea eta samielak

Oporrak amaitu eta jende guztia lanera, eskolara edo betiko bizimodura bueltatzeko epea heldu da. Hala ere eta udazkena gogo onez eta gauza berriak eginezko hasteko aukera ezin hobea dugu egun hauetan, kultur astea ospatzen baita Lazkaon. Dantza, jokuak, musika, erakusketak eta filmeak beste ekimen ugariaren artean estaliko dute iraileko aste hauetan herria. (Egitaraua agendan ikusi ahal izango duzue).

Honekin batera eta urteroko legean, aurtan ere Sanmiel eguna ospatuko da hilaren 29an. Jai horretarako egitaraua ondorengoa da:

12:00etan: Meza Nagusia.

12:30ean: Pelota partiduak.

14:00etan: Jubilatuen bazkaria.

18.00etan: Oin Arin dantza taldea.

19:00etan: Buruhaundiak eta Lazkao areto futboleko finala.

23:00etan: Elurte musika taldearekin dantzaldia.

Festarekin jarraitzeko, hilaren 30ean, II. automodelismo irekia izango da plazan, eguerdiko 12etan, eta trikitixa, sagardo dastaketa eta talogileak arratsaldeko 5:30ean.



Esparruko gainean, goizean inguratu zirenak hamaiketakoa egiten.

Urriaren 1ean berriz, II. aeromodelismo probat izango da Zubizkitzan, 12:30ean. Urriaren 4an ipuin kontaketa (printezesa borrokalaria) izango da 17:00etan. Urriaren 6an azkenik, Aitor Furundarena soinu-jolearen saioa izango da Arteaga Egoitzan, 18:30ean.

Esparruko erromeria plazan

Irailaren 17an ospatu zen Esparruko erromeria. Baina eguraldi txarra zela eta, azkenean herriko plazan egin zen

festa. Goizean, jendea animoso inguratu zen arren Esparruko gainera, eguraldiak inongo segurantzirik ematen ez zuenez, bertan ez zen ez taberna eta ez bazkaltzeko mahairik ere antolatu.

Beraz, plazan izan ziren, eguerdi aldera, herriko gazteen arteko herri kirolak. NARBARTETA ELORZA bertsotan aritu ziren eta kontsupea bete jende egon zen bertan bazkaltzen.

Irada Martin

ESTANKO TABERNA

Sanmiel zoriontsuak denoi!

Elosegi, 17

LAZKAO

ZELATA taberna

Uhaitz, 1
LAZKAO

☎ 88 62 18

GIROA TABERNA

Pintxo ederrak jateko aukera

Areso, 6
☎ 88 77 40

LAZKAO

GERRIKO taberna

Eguneroko bazkariak
Afariak

Elosegi, 16

LAZKAO

☎ 88 99 43

MANUEL-ENEA TABERNA

Festa onak pasa!


Elosegi, 5

☎ 882029

LAZKAO

Gazteen lan taldea martxan

Maiatzan izandako hauteskundeen ondoren, batzorde ezberdinen banaketa egin, eta batzorde bakoitza bere ekintzak antolatzen hasi zen. Udalaren nahia, batzordeetako komisio informatiboak herritarrei irekiak izatea da. Gazteria eta Kirol Batzordea astelehenero biltzen da. Gazteei deialdi bat luzatu, eta 10 laguneko taldea osatu zen ekintza ezberdinak antolatu asmotan. Talde heterogeneoa da, beraz, ideia ezberdin ugari sor daitezke bertan. Taldearen helburua gazteei zuzenduriko ekintzak antolatzea da eta horren adibide dugu martxan dagoen 'Gazte Zine Emanaldia'.



Uztailetik martxan dago igeriketa teraupetikoa, eta oso harrrera ona izan du. "Uretako ariketek lurrekoek baino aukera gehiago ematen digute, ariketa ezberdinak egin daitezke uretan. Uztaileko esperientzia horretatik abiatuta, eta eremu gehiago hartuz, eta profesional ezberdinen bateratzearekin osatu dugu programa, guzti hori, bizi kalitatea hobetzearen", adierazi digu Mikel Garmendia tekniko espezialistak.

'Bizia-Osasuna' Kiroldegian

Bizkarreko arazoen aurka eta bizi kalitatea hobetu asmotan, 'Bizia-Osasuna' programa martxan jarri da Beasaingo Antzizar Kiroldegian. Horretarako, mediku espezializatuak zuzendu eta gainbegiraturako programa pertsonalizatuak erabiliko dira, beti ere, igeriketa teraupetiko, egokitutako gimnasia, hidroterapia, masaia, osteopatia eta ariketa sistematizatueta oinarrituta. Gipuzkoan aitzindari da 'Bizia-Osasuna' programa. Jon Alkaiagak (Gazteri eta Kirol zuzendaria), Ramon Garatek (mediku espezialista), Mikel Garmendiak (tekniko espezialista), Etor Mendiak (programaren koordinatzailea), Jaione Iurramendik (igeriketan espezialista) eta Javier Marzabalek (masajista osteopata) izango dute programaren ardura.

"Estatistiken arabera, 3 lagunetatik lek bizkarreko minak ditu, tarteka edo etengabe. Batzuen, gutxienena, da patologikoa. Gehienena eguneroko bizitzaren --lanbidea dela eta-- ondorio dira. Beraz, guzti horiei dago zuzendutako programa hau", azpimarratu du Ramon Garatek.

BGA: 'Uranio Ferum'

Gazte Asanbladak eta Beasaingo 7 musika taldek 'Uranio Ferum' izena daraman maketa grabatu dute. Ideia BGaren asanblada batean sortu zen eta taldearen finantziatorako mesedegaria izango delakoan. BGak Udalaren laguntzaz, produkzio gastu guztiak bere gain hartu zituen. Izurri berria, Never Land, Aurten bai, Absorber, Amen, Improvisados eta Kolpez-kolpe (txalaparta) taldeen bina abesti daude maketan. 40 minutuko iraupena du. Txalapartaz hasi eta bukatzen da. Estilo ezberdinetako musika biltzen da. Talde gazteak dira guztiak, partaideak 24 urtez beherakoak dira.

Grabazioak Loiolako Cybertrick estudioan egin ziren. Ondoren maketa Bilboko DDT banatzaile etxera bidali zuten, eta salmentarako prest atera zuten. Orain maketa Orenseko banatzaile etxe batera bildati behar dute, bertatik zabal dadin. 500 pezetan dago salgai, Beasaingo Arrano, Txupitos eta Potten; Ordiziako Orlegi, Leizea eta Gaztetxean; eta Lazkaoko Gerrikon.

 Izaskun Salazar

MEKABIZKOR

BEASAIN

Bizkor eta errez mekanografia ikasteko metodoa
San Inazio, 15 - 1. ☎ 16 15 53



ILEAPAINDEGI
MISTOA

Joan Iturralde, 5-7 (solairu-arte)
Tfnoa.: 16 11 05 BEASAIN



Giro fator eta atsegina

BASAKANA

ITURRIOZ 11
BEASAIN

Mendizaleak aurrera...

Joan zen igandean, hilak 17, ospatu zen, aspaldiko partez, Mendi Ibilaldi Neurtua. Ataungo Kirol Elkarte eta Oargi-Troskaeta izan ziren antolatzaile Udalaren laguntzaz. Eguraldiak eta egunak oso egoki ez baziruditen ere, 40 taldek hartu zuten parte, bai bertako eta kanpotar. Aipagarria da Nafarroako Beratik etorritako saila.

Atakabiko koba izan zen partaideek gehien aipatzen zuten lekua. Izenak dioen bezala, Arastortz mendia aldenik alde igarotzen baitu. Leku eder eta miresgarriak; Joxe Ramon Agirre 'Marron'-ek zioen bezala, Euskal Herrian oraindik ezagutzen ez diren tokiak ezagutarazteko aukera paregabea.

Antolatzaileak pozik ziren. Baina gogorazi nahi dute, datorren hilean hasiko direla berriro hilean behingo irteerak. Lehenengoa Jentilbaratzara izango da.

Laugarren haurra

Aimar izeneko mutiko ederra izan zuten Nekane Eskisabel eta Koldo Zalduak joan zen larunbatean hilak 9. Aurtengo laugarren ataundarra, zorionak!

Antton Zeberio

Atxurren jaioa. 76 urte. Gazterik aldegin zuen Ataundik. Leku askotan ibilitakoa: Donostiako Maria Cristian, Madrilgo Palacen, Bilboko Abran eta Carltonen, Santurtzitik Ameriketarako bidea. egiten zuten itsasuntzietan, berriro Carltona itzultzeko. Azkenik, La Sociedad Bilbainan jubilatzen sukaldeburu zela 1984an. Jakin dugunez, oraindik ere janari goxoak prestatzeko ez zaio abila.



17 ataundar eta bi lazkaotar Enirion.

daderik falta eta lagunentzat ari denean Atxurreneko baratzako gauzak inguruan izaten ditu.

Dena den, sukaldaritzan urtetan pilatutako jakinduria ez da alferrik galduko, bere seme Mikelek aspaldi hartu baitzuen aitaren bidea. Beraz, Deustuko Bordatxo jatetxean badugu ataundarron puskea.

Pala txapelketa

Artadi Elkarteak antolatutako lehiaketan parte hartu nahi dutenek, hilaren 26rako eman beharko dute izena. Urrian hasteko asmotan omen dira.

Lanpostu berriak

Hil honen 22an izango dute herriko eskolan bigarren ariketa-froga, joan zen 6an euskarako froga gainditu zuten 10 lagunek (eginkizun anitzetako operaritarako). Administrazio-laguntzailetarako, berriz, 3 lagun gelditu

dira aurrerako. Hauek irailaren 25ean izango dute hurrengo froga Victor jatetxean.

Atsedentokiko berri

Atsedentoki Elkarteak ohiko mendi ibilaldia prestatzen ari da. Datorren hilaren 5ean izango da eta Agerre, Ustatxo, Eskixal, Arrondo eta Astigarran zehar antolatze asmotan dira. Jakinaren gainean zarete, beraz, jubilatuz zahar eta gazteak.

Zozketa

Joxemiel Barandiaran Murkondo Kultur Elkarteak antolatu duen zozketan zenbaki saritua 1.168 izan da. Saria jasotzeko 88 87 02 telefonora deitu.

 Jesus eta Jon Aizpurua



GAINTZAKO UDALA

Jai zoriontsuak herritarroi!



ALTZAGAKO UDALA

Herritar guztiei eta egun hauetan bisitatuko gaituzueni festa alai eta zoriontsuak opa dizkizuet.

Alkateak

Gainean dira sanmielak

Jadanik udazkenean gaude, San Migel jaiak gainean ditugu, eta urtero egin ohi dugunez, prestatu dugu egun hauetarako egitaraua. Denetik pixka bat, jubilatuentzako bazkari goxoa ostiralean egingo den herri bazkarian, ehiztarien apunteria probatzeko toka txapelketa bazkal ondorenean eta sasoiko jendea probatzeko hiru egunetan nahiko trikitixa, haurrentzako jolasak larunbatean, eta herri kirolen alorrean igande arratsaldean 4 aizkolari gazte lan bikaina burutu nahian. Ez daukate ez txantxetako lana, 4 egun kana erdiko eta beste lau 60 ontzako.

Ez dira otordu goxoak egiteko aitzakiak falta, ostiralean herri bazkaria, larunbatean herri afaria, langostino jatea, sagardo dastaketa etab.

Egitaraua prestatuta dago, orain eguraldi ona egitea eskatu behar.

Irailak 29, ostirala: Jubilatuen eguna

12:00etan: Meza Nagusia.
14:00etan: Herri bazkaria, Joseba Iparagirre trikitilari eta Peñagarikano eta



Dantza bitxia 1922ko argazki honetan azaltzen dena, dantza soka, herriko gazteak burutzen omen zuten, oraindik urte asko ez dela herriko jaietara lotuta zegoena. Aurrekua, atzekua, axari dantza etab. egiten omen zituzten, jai arratsaldean agintarien aurrean egiten zen ekitaldi honetan.

Sorozabal bertsolariekin. **19:00etan:** Toka txapelketa. Ondoren, trikitixa.

Irailak 30, larunbata:

18:00etan: Haur jolasak. **21:00etan:** Afaria. Ondoren, Zabaletaeta Imanol trikitilariak. **Goizaldera,** langostino jatea Artea Elkartean.

Urriak 1, igandea:

10:00etan hasita, Goiz Eresia Alegi-

ko txistulariekin. **12:00etan:** Meza Nagusia. **17:30etan:** Aizkolari saioa: Patxi Mindegiak (nafarra), Baleriano Aranburuk (Andoaingo), Iñaki Azurmendik (Arriarango) eta Axen Urretabizkaiak (Altzagakoa), 4 kana erdiko eta 4 egur 60 ontzako ebaki beharko dituzte. **19:00etan:** Sagardo dastaketa. Ondoren Lazkanoiturburu trikitilariak. **24:00etan:** Festei amaiera emateko, baratzuri zopa.

GAINTZA

San Miel jaiak

Irailak 28, osteguna:

19:00etan: Suziriekina festa hasera. **20:30etan:** Herri afaria (Kale-Txikin). Ondoren, trikititixa Laja eta Landakan-darekin. **Goizaldera:** Baratzuri zopa.

Irailak 29, ostirala:

11:00etan: Meza Nagusia. Ondoren jubilatuentzat hamaiketakoa, trikitixaz alaituta. **14:00etan:** Herri bazkaria. **17:00etan:** Toka txapelketa, herri mai-

lan. **23:00etan:** Bertso saioa: A. Egaña, S. Lizaso, A. M. Peñagarikano eta J. Sarasua. Gai jartzailea: Peio Urretabizkaia. Ondoren, Koldo eta Arantxa Iparagirre trikitilariak. Amaitzeko baratzuri zopa.

Irailak 30, larunbata:

15:00etan: Usokume tiraketa, herri mailan. **17:00etan:** Haur jolasak. **18:30etan:** Mondeju dastaketa ardoa-

rekin erregadiatuta. **22:30etan:** Dantzari txapelketa. Ondoren, Zabale anaiekin trikitixa goizalderarte. Amaitzeko, baratzuri zopa.

Urriak 1, igandea:

11:00etan: Meza Nagusia. Ondoren: XII. Txirindulari igoera. **18:00etan:** Asto lasterketa. Ondoren, trikitixa Goiatz eta Maiterekin goizalderarte. Jaiei amaiera emateko, baratzuri zopa.

OTEÑE ERRETEGIA

Bazkari, afari eta edozein ospakizun ingurune paregabean

Larraitz bidea

GAINTZA



88 98 48

ALTZAGARATE JATETXEA

■ Leku aproposa bataio, jaunartze, eztaia, e.a. ospatzeko
■ Bazkari, afari, meriendak...

88 41 96 Tfonoa

ALTZAGA

ZUTen zenbait puntualizazio

Udaletxeko gorabehera batzuk direla eta, ZUTek komunikatua atera du HBren jokabide batzuk kritikatz. ZUTek adierazten duenez, inongo komisiotatik pasa gabe egin ditu zazpi lan- kontratazio, eta ez omen daki zein irizpideren arabera egin diren.

Azkeneko atxiloketen ondorioz, herrian autobusa antolatu zen Madrila. HBren ustez gastuak (105.000 pezeta) Udalak ordaindu behar ditu eta halaxe erabaki zen azkeneko plenoan. ZUT, aldiz, kontra dago, MVLNren estratagiari diruz laguntzea omen delako.

Bost tabernak aurtengo Santafetan txoznak jartzen ez uzteko eskaria zuzendu diote Udalari. Udalak ez du onartu tabernarien eskaria. ZUT, oraingoan ere, HBren posturaren kontra dago, eta oso bidezkoa iruditzen zaio tabernariek egin duten eskaria, konpetenzia makurra omen delako txoznek tabernei egiten dietena. Eta berriro ere, ZUTen esanetan, MVLN delakoaren interesak defendatu omen ditu HB-k.

Irailaren 10ean, herriko erretorearen despedida eta berriaren etorrera zela-

rik, zenbait pintada azaldu zen eliza inguruan, elizaren eta herriko bi tabernen kontra. ZUTek indar guztiz gaitzetsi nahi omen ditu pintada horiek, eta pintada horietan azaldutako instituzio eta pertsona guztiekin solidarizatzen omen. Azkenik poz handia ematen omen dio Udala hain azkar mugitu izanak. Astelehen goizeko lehen orduan jada borrarurik baitzeuden ditzosozko pintada horiek.

Bestalde, bost puntu dituen mozioa sartu du ZUTek pintaden kontra Udaletxean, hurrengo plenoan trata dadin.

Ardiki Eguna

Iazko esperientzia positiboa ikusirik, aurtengo ere egingo da Ardiki Eguna Zaldibian. Urriaren 29an izango da. Baina iaztik aurtengo aldaketa bat dago, aurtengo gazta lehiaketa ere izango da. Aralarko artzaiek egindako gazten lehiaketa, alegia. Horrek esan nahi du artzainak jakinaren gainean egotea komeni dela, eta gorde ditzatela gazta batzuk Zaldibiko konkurtso inportante horretan parte hartzeko.

Erretore berria

Irailaren 9az geroztik Fidel Tolosa Amezketa semea da Zaldibia eta Gaintzako erretore berria. Setien goizaia eta Pagola bikario jenerala izan ziren Gaintzan eta Zaldibian, aldaketaren berri eman eta erretore berriari laguntzen.

Erretore berriak hitz samurrak erabili zituen, eta azaldu ziren pintadekin kontraste dextentea egiten dutenak: *"Nik herri osoarekin nahi ditut harremanak, elizara joaten direnekin eta joaten ez direnekin, denak dira pertsonak eta Jesukristok denak salbatu zituen eta"*. Giza laguntza eta erlijio zerbitzurik ez zitzaiela faltako agindu zien gotzaiak gaintzatarrei, eta Pagola jaunak, berriz, fededun izatea zailtzen ari omen den honetan, tinko irautera gonbidatu zituen zaldibitarak.

 **Rufino Iraola**

OLABERRIA

Oporretatik itzulera

Abuztuko oporrak amaitu eta gero, errutina da nagusi askorentzat. Umeak hasi dira eskolan eta lana dutenak lanean, uda ere laister amaituko zaigu eta aitzaki hori dela medio, ea euri gehiago egiten duen.

Kartzelaratzeara

Argider Mujika herriko gaztea, irailaren 14an sartu zuten kartzelan. Juan Mari Jauregi Gipuzkoako Gobernadore Zibilaren ustez, Argide-



rrek beste lagun batzuekin batera 'Y taldea' osatzen omen zuen.

Saritua

Alberto Irastorza, Bilekotsa baserrikoa, joan zen Ordiziako Euskal Jailetan saritua izan zen abereen sailean. Albertok, Lehiaketara hortara, lau behi eraman zituen eta hiru sari lortu zituen. Ez da marka txarra. Zorionak!

 **Nagore Goiburu**

Lana eta aisialdia biak bat eginez

Orain arte gure herrian arrotza zitzaigun ekintza bat gauzatu dute idiaza-baldar gazteek. 28 laguneko talde bikain batek as-tebeteren buruan, Seguratik Ursuarana, eta Ursuarandik Etxegaratera doan galtzada zahar bati bizia eman diote.

Talde honetako kide batekin, Andonirekin, egin dugu gaur solasaldia. "Ideia honen ika-mika guztiak uda hasieran pentsatu eta bideratu genituen, noiz, nola eta zertarako litzatekeen... baina orduz gero asko izan dira sortu diren buruhausteak. Egia esan, halere, Antonio Berasategirik esker buruhausteak ez dira gehiegi izan, paper kontu guztia berak eramane baitu. Gainontzekoa guztion artean moldatzen joan gara".

Goizean goizetik hasten ziren lanean. "Goizean zortzirak aldera jaikitzen ginen (sukaldeko ordezkariak ezik, haiek 7:30ean hasten baitziren lanean). Ondoren zakua eta gainerakoak jaso, eta gosaltzearekin batera, lan tresnak hartu eta bideari ekiten genion galtzada garbitzera joateko. Bertan lau orduz lan egin ondoren, ordubaterako sukaldariak egindako lanaz gozatzera jaisten ginen. Bazkalondo-



Hamaiketarako izaten zuten atsedenalditxoan GOIERRITARRArentzat ere izan zuten tarterik.

ren, hamaika izaten ziren egin beharrrak. Batzuk ontziak garbitzera (taldeka antolatzen ginen horretarako), besteak konponketaren bat edo etxeko beste zenbait eginbehar burutzera eta arratsaldean denok aisialdiari zegokion ekintzaren bat eramane genuen aurrera. Eskulanak, ibilaldiak, orientazioa, Juan Mari gure lagun biologoarekin landareak eta izarrak aztertu, jokoak eta orokorrean Ursuaranga auzoa ezagutu eta bazterrik ezkutuen konkistatzaila sentitzea. Guztia izan da azken finean ongi pasatzeko arrazoia", adierazi digu Andonik.

Gauai misterio kutsua zeriela antze-man zitekeen bere hitzak entzun ondoren. "Afalostean gauarekin bat etor

zitezkeen ekintzak prestatzen genituen, asteartean esaterako herritarren bisita txalogarria izan zen, Felix eta Aitzol segurarrak izan ziren beste 60 lagunekin batera Ursuaranen eta diapositiba emanaldi bikainaz gozatu genuen. Halere gauak lo egiteko gordetzen genituen, bai guk eta bai ursuarandarrek ere, premia ederra izaten baikenuen".

Esperientzia ona izan da gazteentzat. "Ona, bikaina izan da. Halere dena

ez da irten guk amestu genuen bezala. Izan ere gutariko batzuk ur kutsatua edatearren edo auskalo ze birusen ondorioz gaixo antzean egon ginen".

Elkarriketa bukatzeko, lagundu dien guztiei, Mendi Elkarteri orokorrean eta batipat ursuarandar guztiei eskerrak eman nahi izan die gazteek, eurekin hain ongi portatzeagatik.

San Mielak Ursuaranen

Ursuarango jaiak gainean ditugu. Egitaria dotorea prestatu dute auzotarrek, ondo pasatzeko asmoz. Egitaria agendan duzue.

 Aloña Galarraga


Ford

MUJIKA



BEASAIN ☎ 88 74 00

IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta erakusketa:

Antzizar Auzoa, z/g.

Tfona: 880543 BEASAIN



Tfona: 885500 ORDIZIA

ZORION INSAUSTI

DIETA PERTSONALIZATUAK: argaltzeko, kolesterola, azido uriko, kirolari, eta abarrentzat.

Kale nagusia, 8
☎ 88 13 37

ORDIZIA

140 haurrek hasi dute ikasturte berria

Laiotz Herri Eskolako ikasle-irakasleek pasa den irailaren 11n ekin zioten 95-96 ikasturteari. Hilaren 25erarte goizez arituko dira, eta hortik aurrera arratsaldez ere bai. Kurtsoa 140 haurrek hasi dute, 67 neskak eta 73 mutilek. Guzti horietatik 119 dira segurarrak, 12 zeraindarrak eta 9 mutiloarrak. Mutiloarrak ikas-prozesuaren hasieratik hasten dira Seguran, zeraindarrak berriz, bertan gainerakoa eginda, Lehen Hezkuntzako 2. ziklora etortzen dira 8 urterekin.

Lehendabiziko aldiz eskolan hasi direnak 8 dira, aurtan 3 urte dituztenak: Eñaut Arretxe, Leire Arrieta, Eneko Azpeitia, Jone Beldarrain, Valentina Carvajal, Ainhoa Imaz eta Ainitze Garcia segurarrak eta Jon Ander Insausti mutiloarra.

Beheko eskolan 52 ikasle arituko dira, Haur Hezkuntzako hiru mailak eta Lehen Hezkuntzako 1go zikloko bi mailak. Goiko eskolan 88, Lehen Hezkuntzako 2. ziklotik hasi eta OHOk 8. mailarartekoak.

Pasa den ikasturtean OHOk 8. maila amaitu zutenak 26 izan ziren. Horietatik 13 Goierriko Lanbide Eskolan hasiko dira eta beste 13 Institutoan zein Lizeoan.

Irakasleak berriz, 15 izango dira, aurtengoan 4 berri. Guzti horietatik 4 dira segurarrak.



Eskolan lehenengo aldiz hasi diren 8 umeak hasierako egunak larri samar pasa bazituzten ere, moldatzen hasiak dira.

Jubilatuak ibilaldi neurtuan

Irailaren 22an goizeko 9etan Hondarribian egingo den Gipuzkoako jubilatuen ibilaldi neurtuan, 4 lagunek 2 taldek parte hartuko dute "Atsedan"-etik. Jexuxa Muñoz, Joxepa Telleria, M. Angeles Lizarraga eta Euxebi Iztueta izango dira alde batetik, eta Xabin Aldanondo, Ximon Garaialde, Martxelino Murua eta Arturo Gonzalez bestetik. Sarien ondoren bazkaria izango dute.

Bazkide txartela

Segura Futbol Taldekoak hasiak dira iazko bazkideak berritzen eta berriak

bilatzen. Iazko prezioak mantendu dira, 3.000 pezeta 18 urtetik gorakoentzat, 5.000 senar emazteentzat eta 1.500 jubilatuentzat. Interesatuak futboleko jendearengana jo edo datorkizuenari bazkide txartela hartzen saiatu.

Karobian illea erreta

Segurar asko hurbildu da Zeraina karobia ikustera. Naina bada karobizulora burua ere gehitxo hurbildu eta betillek, bekaiñek eta buruko illek erreta guapo kalera azaldu zaigunik.

 Joseba Telleria

LEGORRETA

Nafarroa Oinezako autobusa

Legorretako Udaleko Kultur Batzordeak, datorren urriaren 15ean Tuteran izango den Nafarroa Oinez 95-erako autobus bat antolatzeke kudeaketa aurrera eramateko asmoa du. Parte hartu nahi duen orok, datorren irailaren 29ko eguerdiko 2:30ak baino lehen udaletxean izena eman beharko du. Bidaia-aren prezioa autobusaren kostuarena izango da. Urriaren haseran autobusa antolatzea posible izango den edo ez erabakiko da. Argia Ikastolaren alde

egingo den festara joateko eta gure laguntzatxoa eskaintzeko aukera paregabea izango dugu. Horrelako aukerak aprobeztatzeak merezi du, ea animatzen zareten!

Helduentzako eskola

Legorretako Udalak Helduen Heziketarako aukera hauek eskaintzen dizkigu: irakurtzen eta idazten ikastea, kultura orokorra zabaltzea; eta eskola gra-

duatua lortzea.

Matrikulatzeko epea irailaren 20rarte izango da zabalik. Bertan 18 urtetik gorakoek hartu ahal izango dute parte.

Inoiz ez da ikasteko beranduegi eta gainera jakituriak lekuri betetzen ez duenez, interesgarria izan liteke edonoren jakituria hobeto jazteko.

 Josune Amondarain

Odolkirik onenak J.M. Debarenak

Azken urte hauetan Jesus M. Deba harakinak odolkgintzan pareko inor gutxi duela erakutsi izan digu behin eta berriz, lehiaketa desberdinetan lehen saria lortuz. Oraingoan ere eta nahiz eta oraindik odolki garaian erabat barneratu gabe egon, Ordiziako Larrun Arrik antolaturiko lehiaketan garaile gertatu ziren Jesus M. Deba eginiko odolkiak.

Ordizian egin zen lehiaketan ondorengo 9 goierritar harakinek parte hartu zuten: Insaustiren alarguna (Zaldibia); Oiarbide (Lazkao); Pello eta Olano (Beasain); Txanketa, Bartolo eta Niko Lasa (Ordizia); eta Ormaiztegiko Jesus M. Deba eta Iñaki Kanpos.

Aurkeztu zituzten odolkien kalitatea nahiko parekoa izan zenez, irabazlea izendatzeko zailtasunak izan zituzten epaimahaikoek. Honela lehen dastaketaren ondoren hiru harakin hartu zituzten garailea erabakitzeke. Deba, Kanpos eta Lasa. Azken hiru hauen artean odolkirik onenak Jesus M. Deba eginikoak zirela erabaki zuten.



Aurreko GOIERRITARRAN esan genizuen bezala, Migel Irizar Peruko Callao eskualdeko gotzain izendute berri du Aita Santuak. Izendapen hau ez da bapateko zerbait, Peruko lur haietan urte askoren buruan eginiko lanaren fruitua baizik. 61 urte ditu ormaiztegiarrak.

Beraz oraingoan ere gure herriko harakin honek odolkiak egiten duen maisutasuna argi utzi du. Aurrerantzean ere lanbide horretatik ateratako produktuak orain arte bezala sarituak izan daitezten opa dizugu. Zorionak!

Pala txapelketa aurrera

Irailaren 4an hasi zen III. San Andres pala txapelketa eta orduz geroztik hastean hiru egunetan partidua jokatzeko 8retan hasita. Orain arte iritsi zaizkigun emaitzak hauek dira. Txurtzil-Alex eta Soto-Karteronek jokaturako partidua 12-35 bukatu zen. Ahoa-Saña eta Lasa-Murua: 13-35; Kanpos-Lasa eta Gari-Koldo: 25-35; Plagaro anaiak eta Mano-Agustin: 35-32; Olan anaiak eta Merzero-Azkarate: 35-17; Irizar-Goikoetxea eta Murua-Armentia: 29-35; Elozegi anaiak eta Gorostidi-Apaolaza: 20-35; eta Izagirre-Urdangarin eta Patxi-Txarli: 32-35.

Aitziber Murua

ORDIZIA

5 ordiziar Euskadiko rugby selekzioan

Autonomi arteko rugby txapelketa laster hasiko denez, Euskadiko Rugby Federakuntzak aurreselekzio berri bat egin du Euskadiko selektzioa osatu asmoz. Aukeraketa honetan bost ordiziar daude: Kleto Esnaola, Santos Regil, Asier Garmendia, Inazio Aiestaran eta Jose Mari Nuñez. Bostok, larunbatean hilak 23an Plentzian izango den deialdira joango dira eta zorte pisika batekin ea denak Euskadiko kamiseta jatzeko aukera izaten duten.

Majori kiroldegiak urteko balantzea

94-95 denboraldia amaitutzat eman ondoren, urtean zehar lortutako emaitzak positiboak izan direla esan liteke.

Hasierako helburua 4.000 abonatura iristera bazen, beterik ikusi dute aurten euren asmoa. Orain lau urte abonatuak 3.400 inguru baziren, aurten 4.200 izan dira. Gauzak honela hemendik aurrera denboraldi bakoitzaren amaieran irabaziak izango dituztelakoan daude Majori Kiroldegiko arduradunak.

Abonatuak dagokienez esan %63k 18 urte baino gehiago dituela. Datu honekin atera daitekeen ondorioa zera da, geroz eta heldu gehiagok aprobeztatzen duela bere aisialdia kirola egiteko. Aerobik, fitness, muskulazioa edo squash-a bezelakoek eskaera handia izan dute. Abonatu gehienak ordiziarrek badira ere, geroz eta

gehiago dira kiroldegiaren eskaintzak aprobeztatu nahi dituzten kanpotarrak, %32a momentu honetan hain zuzen.

Bestalde Kiroldegia erabiltzen dutenei jakinarazten zaie udako denboraldia amaitu dela eta beraz, ohiko ordutegietara bueltatuko direla. Hemendik aurrera astelehenetatik ostiralera bitartean goizeko 9retan irekiko da kiroldegia gaueko 10etan itxeko, larunbatetan 9retan ireki eta arratsaldeko 8retan itxi eta igandetan goizeko 9retatik eguerdiko 1.30 bitartean egongo da zabalik.

Aitor Calvillo

95-96 denboraldiko futbol-talde nagusiak



Lasa (jub.), Jakes (jub.), Navarro, Bengoetxea, Iraola, De Luz, Idiakez, De Andres, Zamora (Entrenatzailea)
Elola, Goikoetxea, Indias, Petxarroman, Kortez, Leturia, Sukuntza, Gomez de Segura eta Errea

S. D. BEASAIN

Jabier Elola	35 Tolosa atezaina
Iñigo De Andres	21 Donostia atezaina
Iñaki Eskisabel	29 Olaberria defentsa
Alfredo Navarro	29 Usurbil defentsa
Jose Antonio Sukuntza	24 Orereta defentsa
Aitor Leturia	23 Segura defentsa
Migel De Luz	22 Zumarraga defentsa
Joseba Orbegozo	23 Lizartza defentsa
Iker Iraola	20 Ordizia defentsa
Xabier Cortes	26 Beasain defentsa
J. Antonio Ugartemendia	26 Lizartza erdilaria
Imanol Idiakez	23 Donostia erdilaria
Juanma Petxarroman	21 Ordizia erdilaria
Aitor Goikoetxea	22 Mendaro erdilaria
Jose M. Indias	24 Lasarte aurrelaria
Jon Bengoetxea	20 Leitza aurrelaria
Unai Errea	22 Donostia aurrelaria
Ander Gomez de Segura	24 Donostia aurrelaria

Entrenatzailea: Jesus Mari Zamora

2. entrenatzailea: Karlos Larburu

Masajista: Markos Gabarain

Altak: De Andres (Real Sociedad B), Iker Iraola (Real Sociedad B), Xabier Cortes (Eibar), Juanma Petxarroman (Real Sociedad B), Aitor Goikoetxea (Real Sociedad B), Jose Mari Indias (Barakaldo), Jon Bengoetxea (Hernani), Ander Gomez de Segura (Lagun Onak).

Bajak: Joakin Larraona, Eneko Gibelalde, Pello Olano, Joseba Irazusta, Jon Aginaga, Beobide, Gorosabel, Odriozola, Oiarbide.

Lehendakaria: Pello Gibelalde

Taldearen sorrera: 1905. urtea

Bazkide kopurua: 650

Aurrekontua: 28 milioi

Helburuak:

J.M. Zamora: "Igandero ahalik eta hobetoen aritzea da helburua. Nik ere futboleak jokatzen nuenean, ez nuen helmugarik jartzen, gero oso zaila baita betetzea. Iazko denboraldian Beasainek ez zuen helmugarik zehaztu eta oso ondo atera zitzaizkion gauzak. Partiduka joango gara, gauzak nola dihoazkigun ikusi eta hortik aurrera izango da helmugak zehazteko garaia. Helburua irabaztea da, eta hori nahikoa da. Iazko denboraldiak ez du aurtengoarekin zerikusirik. Jokalari berri asko daude, 3. mailatik datozenak gainera. Ni oso gustora nago jokalarien lanarekin, eta piskana-piskana uste dut beraien neurria eman dezaketela. Beraien neurria zein den? Hori partiduek esango digute".



ARANDIA
Garajea
AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g
Tfona: 88 09 47

Iurre auzoa
OLABERRIA

KEMEN KIROLAK



LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN



Navarro (delagatua), Oiarbide, Altolagirre, Isaac, Manex, Zubeldia, Igor, Zigor, Roberto, Oroitz, Navarro (entrenatzailea), Ormaetxea Mozo (masajista), Santamaria, Iker, Urrestarazu, Regil, Axier, Konde, Alustiza, Lucio (delegatua) eta Merino.

Entrenatzailea: Manuel Diez 'Navarro'.

Preparatzaile fisikoa: Jabier Mozo.

Altak: X. Oianluze (Urola), U. Altolagirre (Beasain jubenilak), A. Oiarbide (jubena), R. Gelbenzu (Tolosa), A. Urain (Beasain jubenilak).

Bajak: Mikel Huarte, Aimar Arin, Aitor Larzabal, Imanol Oiarbide, Txus.

Lehendakaria: Patxi Lasa.

Taldearen sorrera: 1980. urtea

Bazkide kopurua: 300

Aurrekontua: 6 milioi.

Helburuak: Helburu zehatzik ez. Aha-



Entrenatzailea: Xabi Nuñez

2.entrenatzailea: Javi Fernandez

Preparatzaile fisikoa: Javier Fraile

Altak: Sergio Serrano (Urola), Xanet Garmendia (Urola), Asier Alustiza (Urola), Carlos Maria (Idiazabal), Oier Berasategi (Tolosa), Iker Toural (Sanse), Jon Guridi (Jubeniletatik) eta Juan Pedro

Gonzalez (Jubeniletatik).

Bajak: Jabi Fernandez, Iñaki Soto, Andoni Mujika, Imanol Olazabal, Eñaut Amenabar, David Mujika eta Gaizka Seguro.

Lehendakaria: Juanito Iztueta

Taldearen sorrera: 1940. urtea

Bazkide kopurua: 450

Aurrekontua: Instalazio gastuak barne 9

milioi. Futbol taldea 5 milioi.

Helburuak, Xabi Nuñez: Denboraldi hasieran lehenengo 6-7 etan sartu nahi genuke, preferenteko talde historikoekin batera (Pasajes, Aretxabaleta, Anaitasuna, Mutriku...). Ondoren hor mantentzen saiatu eta gero ikusiko da zer egiteko aukera dagoen.

LAZKAO K.E.

Xabier Oianluze	23 Tolosa atezaina
Oroitz Naldaiz	19 Lazkao atezaina
Mikel Arruabarrena	20 Lazkao defentsa
Jon Zubeldia	22 Beasain defentsa
Isaac Perez	22 Beasain defentsa
Unai Urrestarazu	19 Ataun defentsa
Igor Sarriegi	25 Lazkao defentsa
Unai Altolagirre	18 Beasain defentsa
Pablo Ormaetxea	25 Olaberria defentsa
Angel Merino	19 Beasain erdilaria
Iñigo Regil	23 Ordizia erdilaria
Zigor Begiristain	19 Lazkao erdilaria
Manex Sarriegi	19 Lazkao erdilaria
Axier Larrañaga	20 Alegia erdilaria
Xabier Alustiza	26 Segura erdilaria
Ander Oiarbide	18 Lazkao erdilaria
Roberto Gelbenzu	23 Idiazabal aurrelaria
Arkaitz Urain	18 Lazkao aurrelaria
Unai Santamaria	20 Beasain aurrelaria
Aitor Konde	20 Lazkao aurrelaria
Iker Garcia	20 Ordizia aurrelaria
Imanol Rubio	19 Ordizia aurrelaria

lik eta denboraldirik txukunena burutu. Denboraldi hasieran puntuak lortu, amaieran ez sufritzeko. Eta gainontzekoan, Arizti-Haundi futbol zelaira hurbiltzen diren zaletu apurrak gustora utzi, eta baita gu geure burua ere.

ORDIZIA K.E.

Mikel Gonzalez	19 Beasain atezaina
Iker Toural	19 Beasain atezaina
Juan Pedro Gonzalez	19 Zaldibia defentsa
Javier Murillo	19 Lasarte defentsa
Gabriel Sanchez	19 Lasarte defentsa
Alberto Seren	19 Lasarte defentsa
Asier Alustiza	20 Ormaiztegi defentsa
Carlos Maria	19 Beasain defentsa
Ivan Balerdi	21 Ormaiztegi defentsa
Oier Berasategi	23 Segura defentsa
Iñaki Iraola	19 Ordizia erdilaria
Asier Jauregi	19 Ordizia erdilaria
Aitor Jauregi	19 Lasarte erdilaria
Igor Serrano	19 Idiazabal erdilaria
Xanet Garmendia	20 Segura erdilaria
Asier Martin	21 Ordizia erdilaria
Eneko Galparsoro	22 Ordizia erdilaria
Juan Jose Diaz	21 Legorreta aurrelaria
J. Antonio Ganzarain	19 Zaldibia aurrelaria
Jon Guridi	19 Ordizia aurrelaria
J. Carlos Rodriguez	19 Beasain aurrelaria
Sergio Serrano	21 Idiazabal aurrelaria

Neria Katarain "idiazabaldarra" Guatemalan

Guatemalara oporretan joan eta bertako Antigua hiriko kafetegi batean aurkitu genuen Neria. Euskaldunak ginela konturatu zen eta berak aita euskalduna zuela, nongoa eta Idiazabalgoa gainera. Munduko edozein txokoetan ere goierritarren bat aurkitzen da.

Tomas Katarain Iparragirre, Idiazabalgo Aritzeder baserrian jaio zen 1899. urtean eta beste hainbat euskaldunek bezalaxe gerra garaian ihes egin zuen. Lehenik Parisa joan eta bertan Ingenieritza Hidraulikoa ikasi zuen. Ondoren alde batetik bestera ibili zen mundua ezagutuz. Kolonbiako enpresa elektrikoak kontratatuta iritsi zen Armenia herrira eta bertan Margot Velez-ekin ezkondu. 5 seme alaba izan zituzten: Leda, Juan Eudes, Neria, Bety eta Jose Vicente. Hauek, gaur egun Aritzederren bizi diren Pedro Katarainen lehengusuak dira.

Tomas duela 10 urte hil zen. *"Beti sasoian egon zen, hil aurretik eskatu zuen azken gauza ardi esnea izan zen, pentsa, Kolonbian non lortu behar genuen ardi esnea"*. Esan digu Neriak. Bere aitarentzat hitz ona besterik ez du: *"Oso sentimendu oneko gizona zen, inori ez zion kalterik egin, berarentzat diruak ez zuen garrantzirik eta beti besteei laguntzeko prest zegoen. Nik uste dut euskaldun guztiak horrelakoak direla"*. Honetaz gain, Neriak azaldu digu "euskaldunen hitza" ez dela mito bat bakarrik, *"nere aitak ez zuen paper bat sinatzen, «palabra de vasco» esan eta ate guztiak zabalik zituen"*.

Aitak etxean asko hitz egiten zieten Euskal Herriari buruz, bertako kontuak esan edo abestiak abestuz beti zuen jaioterria gogoan. Baina bost seme-ala-



30 urte daramatza Antiguan Neriak. Arg.: J. Zubiarrain

betan inork ez daki euskararik eta pena handia dute horregatik. *"Umea zarenean horrelako gauzei ez diezu kasu handirik egiten, eta ni 15 urterekin etorri nintzen Guatemala. Ondoren konturatzen zara zer galdu duzun"*. Neriak pena handia du euskararik ez dakielako, baina kaseta jarri eta euskarazko abestiak abesten aritzen da, Iparragirrerenak batez ere.

Gaur egun, Neriaz gain, bi ahizpak Estatu Batuetan bizi dira eta bi anaiak Kolonbian. Denak izan dira noizbait Idiazabalen, Euskal Herria eta beren aitaren sorlekua ezagutzen. Azken 30 urteetan Antiguan bizi den Neria, duela 6 urte izan zen inguru hauetan eta orduko oroitzapenak ez ditu erraz ahazteko moduan. *"Inoiz ez nuen uste hain ederra izango zenik, etxeko janaria oso ona*

zen, jendea zoragarria, familiarekin oso gustora egon nintzen. Hainbat gauzek harritu ninduten, adibidez behien zintzarriek, hemen ez dago horrelakorik. Lehengusuak bisitatu nituen, Luis eta Tomasen txabolan egon nintzen gazta nola egiten zuten ikusiaz, Ordizian ere egon nintzen..." Oroitzapenak-oroitzen, egunen batean itzultzeko asmoa du, baina zaila ikusten du, Antiguan lotura asko bait ditu, senarra, semea... hau Estatu Batuetara Guatemalako eskulana inportatzen aritzen da. Tomas izena duen seme hau ere duela 3 urte izan zen Idiazabalen.

Anaietan, Jose Vicente da Euskal Herriarekin loturarik handiena duena. Kolonbian "Oveja Negra" izeneko argitaletxea dauka eta urtero Madrilera liburu azoka dela eta Idiazabaldik pasatzen da. Berak argitaratua da "Vascos en Colombia" liburu sorta. Neriak eman digu sorta honetako "Apellidos vascos en Colombia" liburua, honen egileak Jaime de Kerexeta eta Francisco de Abrisqueta dira. Azken honek euskarara itzultitako Garcia Marquez-en "Cronica de una muerte anunciada" liburua ere argitaratu du Jose Vicenteren argitaletxeak. Bere lana da baita ere, Katarain-darren arbola geneologikoa, 1620. urtean Gabirian hasi eta gaur eguneraino.

Zabalak dira beraz goierritarrak munduan zehar hedatutako sustraiak. Orri hauek prest daude hauen berri emateko.

M. A.



Munduko
hizkuntza
zentruen
erakunde
handiena

 **inlingua**

HIZKUNTZAK

95 -96 IKASTURTEA

5 urtetik gorako haurrentzako talde bereziak
Cambridgeko azterketarako prestaketa

ORDIZIA
Elkano,8
☎ 88 11 37

BEASAIN
JM Iturrioz, 11
☎ 16 05 72

ZUMARRAGA
Iparragirre,8
☎ 72 22 23

Fotozaharra



‘Zaldibia Futbol Klub’-a

Koldo Zubeldiak bidali digu bere futbol talde ohiaren argazkia. 66 edo 67 urtean ateratakoa omen da. ‘Zaldibia Futbol Klub’aren zortzikoa hauxe duzue:

Zutik, ezkerretik eskubira: Jon Etxeberria, Anjel Mari Galarraga ‘Pototo’, Matias Irastorza, Juan Joxe Leunda.

Belauniko: Luis Anjel Imaz, Koldo Zubeldia, Felipe Arrizubieta eta Jose Ramon Irastorza (atezaina).



- Mediku akupuntorea
- Pisuaren kontrola
- Estetiziena

Santa Maria, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA



ANZIZAR, S. A.

Autoelektrizitatea
eta mekanika

Volkswagen
taldea

Beasain-Zumarraga, 46 Kma.
☎ 88 17 00 - 88 17 04 BEASAIN

KUKO

Jatetxea

Kuko, gure txef-ak
zure sabelak esker-
tuko duen menua
eskeintzen dizu:

Astelehenetik osti-
ralera menu bereziak.

Eguerdietan 2.000
pzta. + BEZa

Toki mugatua dago,
eskaerak aurrez egin.

On egin diezazula!

Berjaldegi plaza z/g
Tfnoa.: 88 28 93
ORMAIZTEGI



UNED-BERGARA IKASTETXE ELKARTUA
1995/96 IKASTURTEKO MATRIKULA EPEAK

LEHENENGO EPEA: irailaren 15tik urriaren 16rarte
BIGARREN EPEA: urriaren 2tik 31rarte

ARGIBIDEAK:

UNED-BERAGARA Ikastetxe Elkartuko Idazkaritza
San Martin Agirre Enparantza, z/g (69 p. k.)
20570 BERGARA
Tfnoa. (943) 76 13 42 / 76 13 43

BULEGO ORDUAK: Asteartetik ostiralera, 10'00etatik 13'00etara
goizez eta 16'00etatik 20'00rarte arratsalde. Larunbatetan berriz,
10'00etatik 13'00etara (urritik). Astelehenetan itxita.

“Ezagutu eta bizi Euskal Herria jatorrizko bertsioan”

GOIERRIKO -n

- Matrikula kanpaina martxan dago ezta?

- Bai irailaren 29an bukatuko da. Nahiz eta geroxeago ere jendea etorriko den. Aukeraren aldetik, berriz, ez dago aitzakiarik, izan ere, ordutegi zabaleko ikastaroak eskeintzen ditugu: goizean, arratsaldean eta gauean. Maila guztietan izena emateko aukera dago; hala ere, hutsune nabarmen bat badugu, alegia, euskalduna den jendea, baina idatzi eta irakurtzeko garaian zailtasunak dituen nekezago animatzen da ikastaroren bat egiteko.

- Garestia al da euskara ikastea?

- Zalantzarik gabe, bai. Gure ustez dohai-
nik izan beharko luke baina horretarako administrazioaren diru laguntza behar da eta hori oraindik eskasa da. Hala ere, Udal-
len laguntzei esker ikasleek subentzioak jasotzen dituzte.

- Eta garestia al da euskara irakastea?

- Zalantzarik gabe, bai. Administrazioaren diru laguntzarekin nekez egin diezaiekegu aurre guk somatzen ditugun behar guztiei: talde bereziak, herri txikiak, ekin-
tzak, irakasle prestaketa, lan eta proiektu berriak... Horregatik beste bide batzuk jo-
rratu behar izaten ditugu: txoznak, errifak, kultur ekintzak eta abar.

**- Zuetaz aparte badira Goierrin beste eus-
kaltegi batzuk. Ba al duzue harremanik
elkarren artean?**

- Bai, badugu eta oso beharrezkoa irudi-
tzen zaigu elkarren arteko harremana eta koordinazioa. Beasainen, esate baterako, dendari eta tabernariei zuzendutako kan-
paina baten ondoren sortutako taldeekin elkar lanean ari gara Udal Euskaltegia eta gu. Lazkaoan ere, Maizpide, GEE, Udala eta bertako ikastetxeekin dihardugu lanean zenbait talde bereziekin: gurasoak, ikas-
tetxeetako irakasleak...

- Beste ezer esan nahi baduzue...

- Euskararen inguruan ez dakigu gauza berri askorik dagoen esateko, baina gure ustez euskara ikasteaz, euskaraz ondo idazteaz eta hitz egiteaz gain, inportantea euskaraz bizitzea da. Aurtengo kanpai-
naren leloak dioen bezala, Euskal Herrian jatorrizko bertsioa euskara baita. Eta guk antolatzen ditugun ikastaro eta ekintzetan horixe eskeini nahi dugu: euskara ikasi eta euskaraz bizitzeko aukera.



Zatoz zu ere AEKra

Ordizia: Santa Ana Ikastetxea. 889174.

Beasain: Kale Nagusia, 5-3. 889340.

Lazkao: Elosegi kalea, 16-2. 889174.